

Barrena

Dolmenen Ibilbidean, ondare arkeologiko gehiagoren bila

1921ean azaletik induskatutako Kereixetako-Egia Iparra tumulua induskatzen hasi dira berriro. Ondare arkeologiko gehiago agertuko den itxaropenarekin ari dira, Aranzadi Zientzia Elkartekoek gidatuta / 20



Aranzadiko arkeologoak eta indusketa lanetan ari den praktikatzailea, Kereixetako-Egia Iparra tumuluan lanean. UBANE MADERA ZANGITU

KULTURA

San Joan suen argitara batuta egingo zaio ongiatorria udari Debabarrenean

San Joan suak piztuko dituzte asteartean han-hemen, eta haien bueltan dantza eginez ospatuko dute urteko egunik luzeena / 26



Mendaron In Leike kultur elkarteak iaz antolatu zuen akelarrea. A. ARGOITIA

HEZKUNTZA

Elgoibar BHI, irakaskuntza euskalduntzeko ahaleginean aitzindari

Urriaren 23an, 50 urte beteko dira Elgoibarren institutua zabaldu zutenetik, eta urtemugako ospakizuna prestatzen hasiak dira / 2-3



A. ARGOITIA

HERRIGINTZA

Banatu dituzte Ostolaza Sariak, herrigintzari eginiko ekarpena aitortzeko

Willy Berasaluzek, Aitzuri Abesbatzak, Zuhatza Euskara Elkarteak, Nerea Loiolak eta Iruñeko Skabidean taldeak jaso dute aitortza / 26



ALEX TURRILLAS

TXIRRINDULARITZA

Mendaron hasi eta bukatuko da bihar, zapatua, gazteen Gipuzkoako Itzuliko lehenengo etapa / 14

INGURUMENA

BateraLabs egitasmoa hasi dute eskualdean, klima-aldaketara egokitzeko

Jasangarritasun Departamentuak eta Naturklima Fundazioak sustatu dute, udalekin eta eskualdeko eragileekin lankidetzan / 4

Euskarazko irakaskuntzan institutu aitzindaria

50 urte beteko ditu urrian Elgoibarko BH Institutuak, eta ospakizuna prestatzen hasiak dira zuzendaritzan ibilitakoak. 1976an zabaldu zutenetik, erreferente izan dira, besteak beste, irakaskuntza euskalduntzeko eta euskarazko testuliburuak sortzeko ahaleginean

Ainara Argoitia ELGOIBAR

1976ko urriaren 23an zabaldu zituen ateak Elgoibarko Institutuak, Eibarko Institutuaren hegalpean. Lauzpabost urtean Arregitorreko lurretan eskeletoan izan zen eraikinak bizia hartu zuen orduan, 77 ikaslerekin. Jaime Arrese (1936-1980) zen alkate Elgoibarren, gobernadoreak aukeratuta, 1979ko Autonomia Estatutua –*Gernikako Estatutua*– onartu zen arte, ez zelako demokratikoki aukeratutako alkaterik izan hemen. Baina Arrese erabakigarria izan zen Elgoibarrek institutua izan zezan, Pello Arrieta historialariaren esanetan. Izan ere, Marcelino Oreja Kanpo Harremanetarako ministroarekin zuen senidetasun politikoa –familia karlistakoak ziren biak– baliatu zuen Arresek Elgoibarren institutua sortzeko baimen-jirak egiteko.

Garai bakoitzak du bere tsuingurua, eta hauzezen ordukoa: Franco diktadorea urtebete lehenago hil zen, 1975ean, baina frankismoaren itzala erabatekoa zen oraindik. Irakasle gehienak eraldunak ziren, eta Hezkuntza Sistema erabat espainiarra zen. Hala ere, Elgoibarko Udaleko zinegotzi batzuk euskaldunak ziren, seme-alabak ikastolan eskolatuak zituztenak; tartean, Arrese bera. Derrigorrezko eskolaldia, berriz, 14 urtera artekoa zen, 1970az geroztik. Izan ere, urte hartan onartu zuten Villar Palaci hezkuntza-erreforma, zeinak Estatuko hezkuntza-sistemaren "modernizazioa eta bateratzea" ekarri zuen, eta zeinaren ondorioz Elgoibarko eskola-mapa ere dezente aldatu zen, ikastetxe asko itxi baitziren. Behin 14 urtera ezkerro, bi aukera zituzten ikasten jarraitu nahi zutenek: ikasketak Lanbide Heziketatik jarraitu –Mekan bazuten horretarako aukera 1964az geroztik– edo BBB Batxilergo Bateratu Balioaniztasuna egin. Bigarren aukeraren alde egiten zuten gehienek Eibarrera jotzen zuten, institutura, La Sallera edo Unibertsitate Laboralera. Egoera hartan, gazte jende horri he-



lñaki Konde, Karlos Ansola, Olatz Sebal, Imanol Lopez, Jorge Perez de Albeniz, Angel Ugarteburu, Enrike Larrañaga, Jone Agirregomezkorta eta lñaki Odriozola.

rrian bertan ikasteko aukera emateko, Elgoibarren institutua zabaltzearen alde egin zuen Udalak. Batzorde bat ere sortu zuten gurasoek, eta balio handikoa iritzi dio Enrike Larrañagak talde hark egindako lanari.

Hura izan zen Elgoibarko Institutuko lehen zuzendari praktikoa. Garai hartan, Filosofia ikasketak ematen zituen Eibarko Institutuan Larrañagak, eta hango zuzendari Tomas Uribetxeberriak eskatuta etorri zen Elgoibarrera. "Hi, oraintxe zaukaugu aukera euskararen alde egiteko" esan zidan, ekarri du gogora Larrañagak. Lizentziatua izanagatik oposizioak egin gabea zen Larrañaga, eta funtzionario izan gabe ezin zuen ardua hura bete. Horregatik, Uribetxeberria izan zen legearen aurrean insti-

tutuko zuzendari, baina Larrañagak bete zuen egunerokoan ardua hura, harik eta, 1977an, Juan Gaztañaga izendatu zuten arte zuzendari. Orduan egin zen Elgoibarko institutu autonomo.

Euskararen aldeko haizea

Dena zegoen egiteko, baina euskararen gaian, gutxienez, aldeko zegoen haizea. Behetik gorako batean, herritarrek hauspotutakoa, hezkuntzan ez baitzen euskarako irakasle-plazarik izan 1979ra arte, *Gernikako estatutua* onartu zuten arte. Baina alfabetatu beharraz eta ikasleak gure hizkuntzan hezi beharraz jabetua zen frankismoak makurrarazia izan zuen gizartea. Elgoibarren, gainera, ikastolatik zetozen ikasleek gurasoek nahi zuten insti-

tutua ikastolaren jarraipen naturala izatea, eta, gainera, irakasle-taldean baziren irakasle euskaltzaleak; tartean, ikastola munduan trebatutakoak eta.

Edozelan ere, aipatu behar da institutuaren sorreratik bertatik izan zuela euskarak lekua irakaskuntzan, irakasgai moduan soilik izan bazen ere. Hala ere, euskara-katedradunak eta agregatuak geroagoko kontua izan ziren, eta bien bitarte hartan beste irakasgaietako irakasle euskaldunek jardun zuten euskara eskolak ematen. Pello Arrieta bera izan zen egiteko horretara jarri zen lehenengoa, baina laster gehituko zitzaizkion beste batzuk taldera. Bazegoen euskara sustatzeko nahi eta borondate bat institutuan, eta ikastaldeak ere euskararen ezagutzaren arabera osatu zituzten sorreratik bertatik. Hala ere, "eguneroko bizitzan euskarak gero eta presentzia handiagoa bazuen ere, *paperetan* apenas ikusten zen horren islarik. Sarritan gertatu izan da hori euskararekin", jasoa du Andres Alberdik bere idatzietan. Gabeziak handiak ziren:

batetik, ikasmaterialik ez zegoen euskaraz, eta bestetik, Administrazioak ezinda, askotan eskolak berak egin behar izaten zituen gestioak irakasle euskaldunak kontratatuzko. Baina hor ere apustua garbia zen, eta hala dago jasota 1979ko maiatzeko irakasle-klaustroko akta batean: "Irakasleak kontratatuzko orduan, lehentasuna euskara dakiten irakasleek izango dute".

Ikastetxe pilotu

Ahalegin haren oihartzuna kanpora ere iritsi zen. Euskal adarrean ikasi nahi zuten gero eta ikasle gehiago hasi ziren iristen Elgoibarko Institutura, herrikoak bertakoak asko, baina gero eta gehiago inguruko herrietakoak ere bai. 1983-1984ko ikasturterako, esaterako, 667 ikasle eta 42 irakasle izatera iritsia zen Elgoibarko Institutua. 42 irakasleetatik 28 euskaldunak ziren, eta ikasleetatik 282 D ereduaren matrikulatuak zeuden –ikasturte hartan arautu ziren D, B eta A hizkuntza-aukerak, nahiz Elgoibarren, praktikan, lehenagotik egiten zen–. Eta ondo egindako

Batxilergoa euskaraz emateko institutu pilotua izan zen Elgoibarko, beste birekin batera

Elgoibarko Institutuko irakasleek sortu zituzten euskarazko testuliburu asko

lan haren guztiaren ondorioz, Hezkuntza Sailak batxilergoa euskaraz emateko ikastetxe pilotu izendatu zuen Elgoibarko Institutua, Hondarribikoarekin eta Hernanikoarekin batera. Normalizaziorako beste urrats handi bat izan zen hura.

Astiro-astiro gauzak aldatuz zihoazen, beraz, baina, artean, bazegoen gabezia handi bat. D ereduko taldeek ez zuten erdal taldeetakoek zuten testuliburu aukerarik oraindik. "Erdarazko testuliburuak itzultzeko beharra ikusten zuten askok, baina erdal mentalitateko liburuak itzultzen hasi ordez guk geureak, euskaratik sortutakoak, sortzeari ekin genion", oroitu du Ugarteburuk. Horri heldu zioten 1985ean Elgoibarko Euskara Mintegiko Andres Alberdik, Markos Balentziagak, Iñaxio Garmendiak, Myriam Villasantek eta Angel Ugarteburuk berak. Beharrak eraginda ekin zioten *Euskal Hizkuntza eta Literaturako* testuliburuak sortzeari. Erronka hari beste hainbat mintegitako irakasleek ere erantzun behar izan zioten; Historiakoek, esaterako. Egunari egun, orduei erreparatu barik jardun zuten, eta Euskal Herriko ikastetxe askotan erabili izan ziren gero urteetan testuliburu haiek. Gizartea bera ere bazihoan, poliki-poliki, euskalduntzen. 1985-1986ko ikasturteko UBiko (COU) promozioa izan zen, esaterako, Unibertsitateko Hautaprobak lehen aldiz euskara hutsean egiteko aukera izan zuena, eta Elgoibarko Institututik gehiago izan ziren euskaraz egitea erabaki zutenak erdaraz egin nahi izan zutenak baino.

Institutuak bere martxa normala hartua zuen. Elgoibarrera zetozen ikasleak euskal lerroetakoak ziren gehienak. A ereduaren premiarik ez zegoen, eta B erdua ere desagertuz zihoan, ez institutuak eskaintzen ez zuelako, eskabiderik ez zegoelako baizik. Hala iritsi ziren 90eko hamarkadara, pausoari pauso.

Eraikina txiki ikasleak hartzeko 1990eko urrian Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren Lege Organikoa (LOGSE) promulgatu zuten, eta hark ere eragina izan zuen institutuan. Izan ere, orduara arte 14 urtera artekoa zen derrigorrezko eskolaldia 16 urtera luzatu zuen LOGSEk, eta DBHko lau ikasturteak eta batxilergo berriko beste biak emateko lekurik

gabe gelditu ziren Arreiturre eraikinean. Hala, Ikuskaritzatik eta Hezkuntza Sailetik proposatuta, obrak egin zituzten ikasleek lekua egiteko, baina ez zen, hala ere, nahikoa izan eskaera handi hari erantzuteko –455 ikasle zuden–. Eta egoera hartan, beste irtenbide bat adostu zuten Meka Carlos Ansola eta institutuko Angel Ugartebururen zuzendaritza taldeek (1993-1998): elkarrengandik hurbil zeuden bi ikastetxeen azpiegiturak partekatzea eta Internet sare berean batzea. Teknologia, euskara eta kalitatezko zerbitzua eskaintzeko ahaleginean, bientzat izan zen mesedegarri bateratzea: batetik, batxilergoko ikasleak Meka bideratuta –Ezenarro eraikina–, erosoago hartu ahal izan zituztelako DBHko ikasleak Arreiturre eraikinean; eta, bestetik, bi ikastetxeen arteko lehia ere saihestu zutelako.

Elkarrekin egin zuten bidea 2008ra bitartean bi ikastetxeek, Hezkuntza Proiektua adostuta. Aipagarria da tarte hartan Elgoibarko Institutuak kalitatearen berme diren ziurtagiriak lortzeko egindako lana, eta horretarako akuilu izan zuten DBH ezartzeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoak berrantolatzeko 1996an onartu zuten eskola-mapa. Eskola-mapa haren ondorioz, apalzte bat izan zuten matrikulazioan Elgoibarko Institutuan, besteak beste, Soraluzeko ikasle askok Bergararako bidea hartu zutelako, eta Debakoek, Zarautzerakoa. Eta egoera iraultzeko, ISO 9.000 ziurtagiria lortzea jarri zioten erronka beren buruari zuzendaritzakoek. Kalitatea Kudeatzeko Sistema (KKS) ezartzea eskatzen zuten ziurtagiri hark, ikastetxeeko prozesu administratiboak zein pedagogikoak estandarizatzeke, kontrolatzeko eta optimizatzeke. Horrek eta urte gutxiren buruan eskuratu zituzten Zilarrezko Q-ak, ingurumen-kudeaketa estandarizatzeke ISO 14.000k eta beste kalitate ziurtagiri batzuek "sona eta erreferentzialtasuna" eman zioten Elgoibarko Institutuari, "aitzindari" izan baitzen horretan,

Aitzindari, prozesu pedagogikoak estandarizatzen, kontrolatzen eta optimizatzen



Batzordekideak, batzar batean, 50. urteurrena prestatzen. LAGATAKOA

eta, hein berean, ikasle kopurua handitzea ekarri zuen, zeina beti den gauza ona eskaintza zabaldu ahal izateko.

Eskaintza zabala

Lan askoko garaiak izan zirela oroitu du sasoi hartan Elgoibarko Institutuko zuzendari izan zen Iñaki Kondek (1998-2008). Meka zuzendari Karlos Ansolarekin batera, hamaika bilertan parte hartu zuen, eta, gauza berriak ezartzen diren aldiro gertatzen den bezala, "erresistentzia batzuk" ere izan zituzten inguruan, baina gerora institutuaren ardura hartu duten zuzendariak –eta irakasleek– asko eskertu dute orduan egindako lana. Hala esan dute, esaterako, erreportaje honetarako solasaldian parte hartu duten Imanol Lopez eta Iñaki Odriozola zuzendari izandakoek.

Kalitatearen bermea izateko egindako lanaren ondorioz, esan bezala, Elgoibarko Institutua erreferente bihurtu zen inguruan, eta eskaintzen zuten batxilergo guztietan –batxilergo artistikoa ez beste guztietan– "modalitateko ikasgai guztiak eskaintzen zituen ikastetxe bakarra izan zen Euskal Herrian". "Horretarako, jakina, ezinbestekoa izan zen klaustro osoaren inplikazioa. Ikasgai jakin bat bost ikasleri emateak eskatzen zuen beste irakasle bat ikaslez kargatzea, baina, hori gabe, ezinezkoa za-

Lanbide Heziketako Meka ikastetxearen Ezenarro eraikina erabiltzen dute batxilergoa emateko

tekeen modalitateko ikasgai guztiak ematea, eta prestasun hori izan genuen guk hemen. Hori izan zen beti gure ezaugarria: ahalik eta eskaintza zabalena ematea ikasleei; eta eskaintzaren eta eskariaren araberako puzzlea osatzea izan zen gure burukomin handietako bat. Batxilergoan 400 ikasle dituen ikastetxe batentzat erraza izan daiteke, baina ez zen batere samurra 130 bat ikasle zituen gurea moduko ikastetxe batentzat", aitortu du Lopezek.

Bereiztea

Lopez bera zen Arreiturreko zuzendari Meka Lanbide Heziketako Zentro Integratu izendatu zuten garaian –Jose Mari Beristain zegoen Mekan zuzendari–. 2008an izan zen hori. Meka Lanbide Heziketako Zentro Integratu izendatzeko, baldintza bat bete behar zen: "Lanbide Heziketa bakarrrik eman behar zuten". Horregatik, ezinbestean banatu beharra izan zuten orduara arte bidea elkarrekin egin zuten Lanbide Heziketako eta DBH-batxilergoko zentroak. Banatu zituzten espazioak eta diruak, eta banaketa haren ondoren eratu zen Elgoibar-Arreiturre Institutua.

Hazia ereinda zuten, eta haztea zegokion institutuari. Garai hartan hartu zuen zuzendari kargua Iñaki Odriozolak, zortzi urterako. Haren zuzendaritza taldearen agintaldian ezarri zuten Elgoibarren Batxilergo Artistiko Musikala, eta Debabarrenean arte-batxilergoaren eskaintza osatu zuten, Eibarren ordurako eskaintzen zutelako arte-batxilergoaren beste adarra, diseinu grafikoari lotutakoa. Batxilergoan 200 bat ikasle izatera iritsi ziren, eta DBHn gainezka egin zuten

ikaslez. Horrek behartu zituen berriro ikastetxean obrak egitea. Ikasgela berriak sortu zituzten, jolaslekua estali, ZIG gela berri, eta Hauspoa programa ezarri. ISO 9000 kalitatearen ziurtagiria berritzea eta Kalitatea Hezkuntzan Brontzezko Ziurtagiria ere eskuratu zituzten –EAEko Bigarren Hezkuntzako aurreneko institutu publikoa izan zen lortzen–, bi-hiru urteren buruan, eta bide horri eutsi diote ondorengoek. Institutua erreferentziatzeko zentroa da gaur eskualdean.

700 ikasle baino gehiago

700 ikasle baino gehiago daude matrikulatuta aurtenean, eta, Jone Agirregomezkorta zuzendariak aurreratu duenez, datoren ikasturtean hementzi gela izango dituzte DBHn eta hamalau batxilergoan –ZIG gela ere badago–. DBHra, bereziki, Elgoibarko Herri Eskolako eta Mendaroko eskolako ikasleak etortzen dira, baina batxilergoan, eskualde osoan; batez ere, Debatik eta Soraluzetik. Batxilergoan hiru modalitate eskaintzen dituzte: zientifiko-teknologikoa; giza eta gizarte zientzietakoa; eta artistiko-musikala. Institutuko ikasleak bi eraikinetan banatuta daude: Arreiturren eta Ezenarron.

Debabarreneko euskaltzaleak ere izan dira Iruñean, Kontseiluak antolatutako martxan

'Euskaraz bizitzeko behar den dena' lemapean antolatu zuten ekitaldia



Autobusez joan ziren hainbat lagun Debabarrenetik. KRISTINA ZUATZUBIZKAR

Ainhoa Andonegi DEBABARRENA Euskaltzaleon Martxak milaka herritar elkartu zituen joan den zapatuan Iruñean; tartean, Debabarreneko herrietatik joandako euskaltzaleak. Hain zuzen ere, Euskalgintzaren Kontseiluak euskararen ofizialtasun osoa, hizkuntza politiketan premiazko jautzia eta euskaltzalearen indarberria aldarrikatu zituen. Hiru zutabetan banatuta, *Euskaraz bizitzeko behar den dena* lema-

pean, ofizialtasun faltaren ondorio gordinak erakutsi, jauziaren edukiak zehaztu eta euskaltzaleak egunerokoan antolatuzera deitu zituzten.

Euskarak behar duen erronka Kontseiluak dio euskarak behar duen erronka dela 2036rako 300.000 euskaldun gehiago izatea, egungo euskalduntze-erritmoa bikoiztuta. Horretarako, beste hainbat mobilizazio iragarri dituzte aurrera begira.

Azaroaren 21ean, Ipar Euskal Herrian euskara ofiziala izan dadin eskatzeko manifestazioa egingo dute, Baionan, Euskal Konfederazioak deituta. Abenduaren 19an, berriz, Nafarroan zonifikazioa ezarri zuen legeak 40 urte betetzen direla eta, desberdinkeria hori amaitu eta euskara Nafarroa osoan ofiziala izan dadila eskatzeko mobilizazio handi baterako deing du Euskalgintzaren Kontseiluak.



Debabarreneko ordezkari politikoak. FORU ALDUNDIA

Klima-aldaketara egokitzeko prozesua abiatu dute Debabarrenean

A.A. ELGOIBAR

Debabarreneko 80 bat eragile batu dira Eibarren, BateraLabs egitasmoaren barruan, eskualdea klima-aldaketara egokitzeko asmoz. Partaidetza prozesua abiatu dute, eta parte hartzen duten guztien artean adostuko dituzte ekintzak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak eta Naturklima Klima Aldaketaren Fundazioak sustatu dute, udalekin eta eskualdeko eragileekin lankidetzan.

Emaitzak

Jardunaldian aurkeztutako diagnostikoaren arabera, Debabarrena klima-arrisku gero eta handiagoen testuinguruan dago; batez ere, tenperaturen igoerarekin eta prezipitazioen irregulartasun handiagoarekin lotuta.

Inpaktu garrantzitsuen artean daude bero-boladen eta gau tropikalen gorakada, bai eta lehorre luze aldien eta euri-jasenera arteko txandakatze ohikoena ere. Konbinazio horrek, aldi berean, uholde-arriskua, mendi-hegalen higadura eta balizko lur-luiziak areagotzen ditu, eta, gainera, presio handiagoa sortzen du ekosistemetan eta lurzoruen erabileretan.

BateraLabs etengabeko lan-prozesu bat da, diagnostikoak lurraldeko eragileen artean adostutako klima-egokitzapeneko ekintza zehatz bihurtu nahi dituena. Eibarren egindako saioa baliagarria izan da analisiak partekatzeko, pertzepzioak aldatzeko eta hurrengo bileretan jorratuko diren lehentasunak identifikatzeko.

Eskualdeko industria-sarearen egoera aztertu dute



Batzarrean parte hartu zuten ordezkariak. LAGATAKOA

BPTD (Basque Precision Technology District) elkarteak biltzar nagusia egin zuen joan den astean Elgoibarko IMH Campusean. Teknologia sektoreko 80 ordezkari baino gehiago batu ziren, eta eskualdeko industria-sarearen osasuna eta etorkiz-

neko erronkak izan zituzten aztergai. Horrekin batera, Debabarrenak lankidetzaren, berrikuntzaren eta ekintzailetzaren bidez aukera ekonomiko berriak sortzeko duen "potentziala" aldarrikatu zuten.

Ongizatearen Plaza *Deba*

ekainak 25-26, Foruen Plaza

Ongizatea ondo bizitzea da. Zu, zure familia eta zure komunitatea ondo egotea eta ondo sentitzea.

Pertsonen ongizatean eragiten duten faktoreetan sakontzeko, adin tarte guztientzako tailerrak, talde dinamikak, hitzaldiak eta solasak antolatuta ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Zatoz eta parte hartu.



Egitarau osoa: plaza.gipuzkoa.eus

OSTEGUNA - EKAINAK 25

10:00-11:30

osasuntsu zahartu

Adinberri telebista programako kirol saio irekia, estimulazio kognitiboko tailerra, eta mindfulness terapia.

11:30-13:00

autonomia eta prebentzioa zahartzaroan

Zaintzaren ikuspegi berriek autonomia, bizi-proiektua eta komunitate loturak ardigunean jartzen dituzte, pertsonak aholik eta denbora gehien bere etxean bizi daitezela. Prebentzioa, eguneroko ahiturak, harreman sozialak eta komunitate sareak furbetuzkoak dira zahartzar aktibo eta autonomoa sustatzeko.

17:00-18:00

hizkuntza, nortasuna eta ongizatea: Deban nola bizi dugu euskara?

Euskarak gure nortasunean eta ongizatean duen eragina aztertuko dugu, hainbat profiletako herritarren esperientzien bidez.

18:00-19:00

pentailen aroan, erabilera osasuntsua

Alta Buroa elkartearekin, mugikorrak eta teknologia digitalen erabilera gazteen ongizatean duten eraginari buruzko saio dinamiko.

OSTIRALA - EKAINAK 26

10:00-11:30

elkadura jasangarria eta osasuntsua

Jakoba Errekondo agroekologia aditua eta Debako bi ekoizle elikadura arduratsu eta jasangarriaren giltzarriak azalduko dituzte.

11:30-13:00

nahi ez den bakardadea

Bakardadea ez da soilik adinekoen arazoa; gazteei ere gero eta gehiago eragiten die. Adas Teatroak ekoliziteko hiru mikrodokumental abiapuntu moduan hartuta, kasu errealeak gertutik ezagutuko ditugu solasaldi ireki batean.

17:30-18:30

barreterapia tailerra

Bare eta umorearen bidez ongizate emozionala lantzeko talde dinamikoa, Idoia Torregera umoregilearen eskutik.

18:30-19:30

amaiera alaia eta txakoli dastaketa

Bi eguneko esperientziak partekatzeko amaiera irekia: Getariako Txakolinaren azalpena eta dastaketa Kalean Kantuz taldeak gidatuta.

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

OSASUN GIDA

RPS 271/12

ainhoa
Fisioterapia eta Ergonomia

Jausoro plaza, 6 behea - Elgoibar

943 531 953
669 565 745

fisiomás
Fisioterapia neurrala eta Kirol Berrogekitza

Trenbide kalea, 13

943 740 191 / 667 953 625
www.fisiomas.com

leku eder
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo
Alta Agiri Erparantzia, 5 - Elgoibar

943 530 053

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Eibar

677 551 850

NIRE USTEZ

Bagara



ANGEL UGARTEBURU
IRAKASLE OHIA

Garatu, garapena... Askotan entzun eta erabiltzen ditugun hitzak; batez ere, euskara eskoletan sartu ondoren. Lehen, ez hainbeste. Nire ume denboran labore eta fruituak izendatzeko *garaua* (alea) erabiltzen genuen: *Sagar garau ederrak eman ditu sagarrondoak; oiloek gustura jaten dituzte artagarauak (artaleak); garigarauak kaxetan sartu ditugu; hori bai mutil/neska garaua! (bikaina, ederra)*. Irailari izena ematen dion *ira*-k ere baditu bere *garauak* (esporak). Horregatik, Euskal Herriko leku askotan jatorrizko *ira* hitzaren ordez *garoa* erabili ohi da. Irati edo iratzeak garatzean (*garautzean/heltzean*) baitziren erabilgarri ganaduen azpigarri (kortan/ukuiluan atsedean-leku bigun) izateko. Garaua (alea) sustraietatik bezala, hala gure nortasuna ere. *Gara* aditzak garauarekin lotura zuzenik ez badu ere, funtsean gauza bera esatera dator: fruitu-arbolak eta beste landare guztiak lur bereko sustraietatik elikatuz *garatzen* diren bezala, *naiz, zara* eta *dira* guztiak bat egiten ditu gizatasunak; aberatsago, indartsuago egiten gaitu, *gara* bihurtzen gaitu, natura eta gizartearekin harremanetan osatu baita gure *garuna* (garauna). Arazoak arazo eta gabeziak gabezia, gure arbasoek guk baino harreman orekatuagoa zuten naturarekin. Hizkuntza bera ere, biziraun beharrez, naturarekin harremanetan sortutako erreminta da. Ez gure kasuan bakarrik. Hala izan da hizkuntza guztietan. Sustraiak lur beretik elikatzen dira. Bizi garen egoitzak, lurak, elkartzen gaitu destino berean.

Aspaldi honetan, azken 100 urte hauetan nabarmen, sustraiak ahaztuta adarretatik gabiltza. Elkarrekin behar luketen Naiz eta Gara banandu, dibortziatu balira bezala, lurrean bat egiten gaituen enborraz ahaztuta. Oreka galduta, nor gailendu, nor irabazi, garapen irenduaren bidetik, lorpen erraz eta hurbilaren aldean gizarte osoaren garapen orekatua sakrifikatuz. Hala, hitzak ez ezik, gutako bakoitza ere zerbaki bihurtu gara, beste batzuen negoziogai.

Kristo aurretiko Konfuzio txinatar jakintsuaren esaldi batek ederki adierazten du hemen esan nahi duguna: "Gidari on batek badaki zein den egia; gidari txarrak, ordea, salmenta du helburu". Gizarte osoaren onurak eraman gaitzake gure eta naturaren bilakaera eta garapen orekatu batera. Mendebaleko zibilizazioak, ordea, pertsona isolatuen arrakasta eta bakarkeriara ekarri gaitu, askotan bakoitzaren irabazi azkar eta neurri gabeari begiratzen baitiogu, eta ez gizarteari edo naturari. Hizkuntzak eta harremanak bere barneko zentzua galduz, zerbaki edo azaleko tresna gisa erabiltzen ditugun seinale.

Teknologia berrien bidez manipulatu, hitzak zerbaki eta gure harremana lehia huts bihurtu duten agintariak amildegira garamatzate. Naturarekin harremanetan, han eta hemen, sortu ditugun hizkuntza guztiak dira errespetagarri. Har ditzagun aintzat, baina geurea ere aintzat hartuta, harmonia osatuz. Hizkuntza gutxituok badugu nahikoa lan irudimenez eta militantziaz jokatzeko. Ba ote gara?

GUTUNAK

Jendartekin: bi urteko kultura eta ikaskuntza

NIKA IÑURRIETA
SORALUZE

Bi ikasturteko ibilbidearen ondoren, Jendartekin-ek hutsune kultural bat betetzera lortu du Soraluzen, 55 urtetik gorako pertsonen ikasteko, partekatze eta askotariko proposamenez gozatze espazio egonkor bat eskainiz.

Abian jarri zenetik bi ikastaro bete ondoren, une egokia iruditzen zait Jendartekin proiektuan parte izan dudana esperientziaren balantze pertsonala egiteko, eta nire balorazioa benetan positiboa da.

Bi urte hauetan zehar, proiektu honek gaien katalogo zabal eta askotarikoa garatu du, gure ingurunea eta ongizatea moldatzen dituzten gaiak aztertuz: geopolitikatik eta teknologiatik hasi, eta kultura, zientzia eta giza garapeneraino.

Programazioak modu orekatuan konbinatu ditu, etxeko hizlariak eta kanpoko ahotsak, bakoitzak beren ezagutza eta esperientzia emanez. Eta jarduerak ez dira ikasgelara bakarrik mugatu: inguruko museo eta leku interesgarrietara egindako bisitek kultur proposamen anitza eta orekatua osatu dute.

Parte-hartzaileen gogobetetze-maila orokorra, nire ustez, handia izan da diziplina guztietan, eta hori da, berez, ekimen honen egokitasunaren adierazlerik onena. Ez da kasualitatea:

Jendartekin benetako hutsunea betetzera etorri da. 55 urtetik gorako pertsonen zuzendutako kultura-eremuak ez zuen berezko espaziorik Soraluzen, integratzailea eta jarraitzeko bokazioa zuena. Ekimen honek sortu du, eta ondo egin du. Kohesioa eman dio lehen sakabanatuta zegoen eskaintzari, eta ikaskuntza plazer bat den topaleku bat sortu du, gozatzea beste betebeharririk gabe.

Azken batean, ikasten jarraitzeko, jakin-nahiak lantzeko eta beste pertsona batzuekin konektatzeko benetako aukera da Jendartekin. Aprobetxatu beharreko aukera.

Gaueko kanpaikaden inguruan

E.T.
ELGOIBAR

Azken urteotan hainbat aldiz aipatu den gaia bada ere, berriro ere mahai gainean jarri nahiko nuke herriko elizako kanpaien kontua.

Gaur egun, kanpaiek ordu laurdenean behin jotzen dute eguneko 24 orduetan, gauz ere etenik gabe. Neguan, agian, ez da horren nabarmena, baina uda iristearrekin batera egoera zailago bihurtzen da. Etxe askotan, beroari aurre egiteko, gauz irekitzen ditugu leihoak, etxea freskatzeko. Elizatik gertu bizi garenok, ordea, kanpaikada guztiak entzun behar izaten ditugu: laurdenak, erdiak, hiru laurdenak eta puntuak.

Kanpaiek herriko ondarearen eta tradizioaren parte direla inork ez du zalantzan jartzen. Hala ere, galdera bat egin nahiko nuke: benetan beharrezkoa al da kanpaiek gau osoan zehar maiztasun horrekin jotzea? Izan ere, askotan, esnarazi egiten gaituzte edo atsedean egokia hartzea zailtzen dute.

Gai hau behin baino gehiagotan aipatu bada ere, ez dirudi aldaketarik izan denik. Horregatik, eliza inguruan bizi garen herritarren izenean, hausnarketa bat egitea eskatuko genuke. Agian, posible izango litzateke gaueko orduetan kanpaikadak isiltzea edo, gutxienez, maiztasuna murriztea, herritarren atsedena eta bizi-kalitatea zaintzeko.

Eliza inguruan bizi garenok noiz arte pairatu beharko dugu egoera hau?

Eskerrik asko gai honi tarte bat eskaintzeagatik.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zerbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

Barrena¹

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea

Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria

Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzardea

Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Izaro
Aulestiarte.

Kazetariak

Ainara Argoitia, Ainhoa
Andonegi, Alex Turrillas, Ander
Gomez, Asier Orbea, Egoitz
Unamuno, Izaro Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta, Ubane
Madera.

Diseinu arduraduna

Oier Larreategi.

Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

Kidetzeta eta banaketa

Alex Turrillas.

Maketazioa

Zalao Arnaiz, Oier Larreategi.

Publizitatea

Leire Rubio.

HARPIDETZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA

Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA

Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA

Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA

Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.500 ale

Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala



Elgoibar dantzan jarri dute Udal Musika Bandak eta Sorotan Belek

Taldearen abesti ezagunenak interpretatu dituzte Kalegoen plazan

Ainhoa Andonegi

Publiko fidela dauka Elgoibarko Udal Musika Bandak, eta oraingoan ere ez du hutsik egin. Sorotan Bele folk talde ezagunarekin eman zuen kontzertua aurreko barikuan, eta Kalegoen plaza bete egin zuten herritarrek. *Sorotan Bele gogoan* emanaldiarekin biran ari dira taldekideak herriz herri, 90eko hamarkadan ezagun egin ziren kantuak entzuleen oroimenera eramanda.

Euskal Herriak izan duen folk-pop talderik entzutetsuenetakoa izan da, dudarik gabe, Sorotan Bele. 1992an sortu zuen gazte kuadrilla batek, Hondarribian, eta, lau urteko ibilbide laburra izan bazuten ere, kanta ezagun asko laga zituen taldeak. 1996an desegin zen taldea, baina atzokoak balira bezala dantzatu zituzten elgoibartarrek taldearen kanta guztiak. Ez ziren falta izan, besteak beste, *Arratsalde honetan*, *Uso Xuria* eta *Marinelaren Zai* abestiak, eta gogotik abestu zituen jendeak guztiak.

Emanaldi bereziak, 2016tik

2016an hasi zen Elgoibarko Udal Musika Banda emanaldi bereziak prestatzen. Aretotatik kanpora eskaintzeko moduko saioak egiteari ekin zioten, ohiko publikoaz gain, jende berria eta, bereziki, gaztea erakartzeko. Udal Musika Bandak hilero-hilero betetzen du Elgoibarko herriko Antzokia, baina erakutsi nahi zuten bandak badituela musika egiteko beste aukera batzuk ere. Horrela, areto itxietatik plazara atera zuten banda, eta, ordutik hona, askotariko kontzertuak eman dituzte. Esate baterako, Elgoibarren izan dira Celtas Cortos, Serafin Zubiri eta Ales Sardui talde eta musikari ezagunak. Horrez gain, gospel doinuekin zein abesbatzekin ere uztartu izan dute bandaren soinua, eta Queen taldeari omenaldia egin zioten, Elgoibarko hainbat musikariren laguntzarekin.



Aurtengo gonbidatua Sorotan Bele taldea izan da. JOSE RAMON CABRERA



Kalegoen plaza, jendez gainezka. JOSE RAMON CABRERA



Gorka Sarriegi eta Urbil Artola. ASIER ORBEA

EXPRESS ESKAINTZAK!

HAIER HW80-BP14357TUIB
ARROPA GARBIGAILUA

399 €



- 8Kg-ko karga
- 1400 bira/min.
- 15 programa
- Inverter motorra
- 24 ordura arteko hasiera gerorat

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487
blreg@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

aldaz
hartz klinikak · clínicas dentales


RPS 128/24

Hagin hortz klinikara joatea eskatzen duten arrazoiak

Gure ahoak arazo handiagoak saihesteko abisuak ematen dizkigu. Hona hemen dentistarengana joan behar duzula adierazten duten seinaleak:

- Mina edo sentiberatasuna: hozka egitean edo tenperatura aldaketetan –hotza/beroa– molestatzea.
- Hortzoiaren odoljarria: garbitzean edo bestela odoletan hastea –hortzoi osasuntsuek ez dute odolirik botatzen–.
- Hats txar iraunkorra: higienerari lotuta ez dagoen txantxar edo infekzio posibleen seinalea izan daiteke.
- Murtxikatzeko zailtasunak: hanturarekin edo aztertu beharreko beste hortz-arazoren batekin lotuta egon daiteke.

Arazo horiek garaiz detektatzeak tratamendu errazagoak eta erosoagoak ahalbidetzen ditu.



San Bartolome, 22 - Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377



Elkartearen kanpoaldean egin zuten meza. MIKEL ASKASIBAR



Ane San Martin, margo eskolak ematen. M.A.

Bihar jarraituko du festak Urruzuno auzoan

San Antonio Eguna ospatu zuten asteburuan, eta Urruzuno Trail lasterketa izango da bihar

Ainhoa Andonegi

San Antonio Eguna ospatu zuten joan den zapatuan Urruzuno auzoan, eta, horren harira, hainbat ekitaldi antolatu zituzten auzotarrek. Bero handia egin zuten arren, asmatu zuten eguzkitik nola babestu, eta giro onean joan zen eguna. Ane San Martin margolariak pintura tailerra eman zuen, eta gustura aritu ziren eskulanetan auzora joan ziren gazteak. Meza izan zuten ondoren, eta eguerdian denek elkarrekin bazkaldu zuten, auzo-elkartean. Arratsaldean, berriz, umeentzako jolasak egin zituzten, eta iluntze aldera Imanol Djak jarritako musikaren erritmora jardun zuten dantzan.

Eguna amaitzeko, errifaren zozketa egin zuten, eta Eibarren bizi den Aingeru Butron biz-

kaitarrak eraman zuen otarrea etxera.

Bihar, Urruzuno Trail Fest

Joan den asteburuan hasitakoari bihar emango diote segida Urruzunon, eta auzoko jaien barruan kirola eta musika uztartuko dituzte. Urruzuno elkarreak Urruzuno Trail Fest ekimena antolatu du, hainbat eragileren laguntzarekin; besteak beste, CATT Morkaiko eta Udala. Egitaraua 5,5 kilometro mendi lasterketaren bueltan ondu dute. Albitzuriko industriadetik abiatuko dira lasterkariak, 17:00etan, eta Urruzuno elkartearen egoitza aurrean egongo da helmuga. Auzoko mendiko pistetatik, baso-bideetatik eta bidezidorretatik igaroko da ibilbidea, eta 260 metroko desnibel posi-

tiboa izango du. Izen-ematea egunean bertan egin beharko da, Albitzurin, 15:45etik 16:45era. Partaide bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu. Sari banaketa 19:00etan egingo dute.

Musika saioa

Arratsalde osoko egitaraua antolatu dute auzotarrek, eta herritarrak bertaratu ahal izateko doako autobus zerbitzua egongo da, Txarridunako biribilguneetik, 15:30etik 23:00etara bitartean. Joan-etorriak erraztu nahi dituzte antolatzaileek, eta auto kopurua gutxitu; hala, herritarrei autobusa erabiltzeko eskatu diete. Lasterketako sari banaketa egin ostean DJ saioa hasiko da. Pires eta J arduratuko dira musika jartzeaz, eta txosna eta janari-furgoneta egongo dira Urruzunoko elkarte aurreko plazatxoan.



Bazkaria, auzo-elkartean. M.A.



Aingeru Butron, otarrearen irabazlea. LAGATAKOA.

EUSKARA SUSTATZEKO ELGOIBARKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK



Eskabideak eta beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzakete interesdunek HAZen, Hermitarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana Kalea 2, behea), edota telematikoki Udalaren webguneko Herritarren Atarian.

Informazio osagarria lortu nahi dutenek Euskara Sailean izango dute hometarako aukera (Tel.943 744 366, euskara@elgoibar.eus)

Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 30a izango da:

- UEUk antolatutako ikastaroak egiteko, EHUK eta HIK HASik euskaraz antolatzen dituzten uda ikastaroak egiteko eta Aisialdiko begirale edo zuzendari titulu ofiziala eskuratzeko **ikastaroak euskaraz egiteko dirulaguntzak**.
- Elgoibarko establezimenduetako **errotulu nagusia edota irudi korporatiboa** euskaraz edo ele bietan jartzeko dirulaguntzak.
- Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko dirulaguntzak.
- Euskaltegian edo barnetegian **euskara ikasteko dirulaguntzak** (laguntza hauek eskatzeko azken eguna irailaren 15a izango da).

Zabalik dago Umeen eta Nerabeen egunetako bazkarietan izena emateko epea

Ekainaren 30a izango da bazkarietarako izena emateko azken eguna

Ainhoa Andonegi

Sanbartolomeetako jaien barruan, umeentzako eta nerabeentzako bazkariak antolatuta ditu Udalak, Atxutxiamaika aisialdi taldearen bitartez, eta dagoeneko zabalik dago bazkari horietarako izena emateko epea. Interesatuak ekainaren 30era arteko epea dute izena emateko. Izen-ematea online egin beharko da, *atxutxiamaika.eus* webgunean dauden formularioak beteta. Bazkari bakoitzerako formulario bat prestatu dute. LHko ikasleek Umeen Eguneko bazkarian parte hartzeko aukera izango dute, eta DBHkoek, berriz, Nerabeen Egunekoan. Abuztuaren 27an izango da lehena eta hilaren 28an, berriz, bigarrena.



lazko Umeen Eguneko irudia. ASIER ORBEA

Egitekoak, adinaren arabera

Formularioa betetzerakoan parte-hartzailearen ikasturte maila zehaztu beharko da, eta horren arabera agertuko zaizkio parte

hartzeko dituen aukerak. Batzuek, esaterako, mahaia prestatzen lagundu dezakete, eta beste batzuek erraldoi txikien konpartsan parte hartzeko au-

kerak izango dute. Horrez gain, denen artean egin beharrekoak ere izango dira.

Kamiseta, hilaren 26an

Umeen eta Nerabeen egunei lotuta, egun bakoitza apaintzeko kamisetak aterako dituzte aurten ere. Horretarako, irudi lehiaketa egin dute, eta 30 bat lan aurkeztu dituzte. Horietatik hamar aukeratu dituzte arduradunek, eta finalista horien irudiak Kultur Kafean jarri dituzte ikusgai, herritarrek euren gustukoena aukera dezaten. Dagoeneko itxita dago lehiaketa, baina oraindik badago botoa emateko aukera. Gaur izango da horretarako azken eguna, tabernaren ordu-tegian. Datorren astean jakinaraziko dituzte irabazleen izenak, eta, hain zuzen ere, irabazle horiek aukeratuko dute aurteneko kamisetaren kolorea.

Bazkaritan parte hartzen dutenek kamisetak eskatzeko aukera izango dute, formularioan bertan. Abuztuaren 26an banatuko dituzte, 16:30etik 18:30era bitartean, Bolatokian.

Euskara eskolak Debabe Udal Euskaltegian

Debabarreneko Debabe Udal Euskaltegiak euskarazko B2, C1 eta C2 mailetako azterketak prestatzeko ikastaroak emango ditu, HABERen azterketaldiko bigarren deialdiari begira. Urrian izango da bigarren deialdiko azterketa, eta hari begirako ikastaroa izango da.

Ikastaro trinkoa izango da. Irailaren 7tik 25era izango dira eskolak, egunean bi orduz, eta ikastaroak 30 ordu iraungo du. Euskaltegiko ordezkariak jakinarazi dutenez, izena ematen dutenen beharren arabera osatuko dituzte taldeak, eta haien artean adostuko dute eskolen ordutegia.

Izena emateko epea uztailaren 1etik 17ra eta irailaren 1etik 3ra izango da. Informazioa eskatzeko telefono zenbakia honako hau da: 943 74 27 31. Nahi duenak Udal Euskaltegira ere jo dezake: Aita Agirre plaza 3, hirugarren solairua.

Biraka dantza taldeak amaitu du aurtengo ikasturtea



AINHOA ANDONEGI



AINHOA ANDONEGI

BiraKatering izenburupean antolatu du Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako jaialdia, eta denetariko osagaiak izan ditu aurtengo ikuskizunak. Sarrera guztiak agortuta, hiru egunez jarraian bete dute Herriko Antzokia, eta ume zein heldu dantzan jarri dituzte. Askotariko dantzak egin dituzte,

hainbat estilo eta erritmotako musikarekin. Hain zuzen, dantza biziak zein motelak egin dituzte, eta kolorez jantzi dute antzokia. Ikasturtean zehar dantza eskolan egindako lana erakutsi dute herritarren aurrean, eta ikusleek gogotik gozatu dute.

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
Jarri ezazu suse publikitatean
BARRENA asteakarian
edo
www.barrena.eus
webgunean
943 743 704
688 769 657

 **IXOTU** *goi*

BIO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
AUTOMATIZAZIO, INSTALAZIO ETA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

BERGARA - 943 044 728

NIRE USTEZ

'Tertuliak' programa: asko eman eta gutxi eskatu



IMANOL LARRAÑAGA
'TERTULIAK'
PROGRAMAKO
KOORDINATZAILEA

Tertuliakideok sarri entzun didazuen ideia da izenburura ekarri dudana. *Tertuliak* programak asko eman dio eta asko ematen dio Elgoibar euskaldunagoa izateko herri-ametsari. Eskatu, berriz, gutxi egiten digu, oso gutxi. Antolakuntza- eta koordinazio-lanak oso txikiak eta errazak dira, eta oso diru gutxirekin finantzatzeko da. Gutxi eskatze hori, baina, programan parte hartzen duten *bidelagunei* esker da. Eurek hartzen dute

programaren ardura nagusia, eta, gainera, ez dute txikitarik ere kobratzen. Badira asteroko tertulia-dinamikan hamar urte baino gehiago diharduten *bidelagunak*, eta ikasturte-amaieran ematen diegun erregalutxoak baino ez dute jasotzen bueltan. Bistan da dena ez dela diruarekin ordaintzen! Askotan entzuten dugu, handik eta hemendik, lan boluntarioa gainbehera datorrela, jendea ez dela ezertan mugitzen, baina, zorionez, oraindik bada herrigintzari lotutako lan boluntarioa egiten duen jendea, eta ez euskalgintzan bakarrik. Beraz, 25 urteotan *Tertuliak* programako *bidelagun*-rola bete duzuen guztiok egindakoa goraiatu eta txalotu nahi dut,

programaren 25. urteurrenean gaudela aprobetxatuta. Eta, zelan ez, dakizuena praktikan jarri eta ez dakizuena ikasteko helburuarekin *Tertuliak* programan izena eman duzuen *bidelari* guztion ahalegina ere nabarmendu nahiko nuke. Elgoibarren jende asko da euskaldunagoa *Tertuliak* programari esker. 25 urte, 225 hilabete, 900 aste-ordu, 40 *bidelagun* inguru eta 170 *bidelari* baino gehiago! *Tertuliak* programak bere baitan ezkutuan dituen kopuruak dira. Bistaratu egin behar ditugu, eta haiei balioa eman.

Ane, etxean bada ere, ospatu zuk ere urteurrena, zu ere *bidelaguna* zara-eta.

KLIK

Mutrikuko olatuak, jo eta jo



SAIOA RODRIGUEZ
ARGAZKILARIA



Mutrikuko olatuen festa izugarria izaten da: etengabe, jo eta jo, eta nekatu ez, itsasoaren indarrari begira. Horri guztiari egunsentiko koloreak gehitzen badizkiozu, goiz bikaina topatu dezakezu.



SEMAFORO

Ez da irisgarria



"King-Kong zubian egin duten igogailua ez da irisgarria. Aste honetan hondatuta egon da igogailua, eta hori gertatzen denean ez dago umearen aulkiarekin igotzeko biderik. Gabezia handia da hori. Zubi zaharrak aldapa zeukan, baina posible zen umeen aulkiarekin edo aulki gurpildunarekin igotzea Urazandira. Iruditzen zait igogailuaren proiektu hori ondo amaitu gabe geratu zela, eta behar duela errepidea gurutzatzeko arranzparen bat".

Mantentze falta, igerilekuetan



"Mintxetako igerilekuetara joan gara eta nire umeak bi hanketan mozketak egin ditu, igerileku txikiko baldosekin. Aurreko urtean berdina gertatu zitzaion hainbat alditan. Sorosleek esan didatenez, haur askori gertatu zaie eta gertatzen ari zaie orain ere. Uste dut hau konpontzea premiazkoa dela, eragin ditzakeen higie arazoengatik baita haurren duen eraginagatik ere. Ez dadila izan igerilekura sartzea kezka eragingo digun zerbait". Kiroldagiko zuzendariarengana jo du BARRENAk gai honi buruz galdetzeko, eta ondorengo erantzuna jaso du: "Benetan sentitzen dugu gertatutakoa eta ulertzen dugu sortu dizuen kezka. Igerilekua ireki aurretik maiatzean zehar azterketa sakon bat egin bagenuen ere, ez genuen ezer berezirik aurkitu. Une honetan erabiltzaileen kezkak ikusita gai honen azterketa tekniko zehatz bat egiten ari gara gure balibideekin, eta horrez gain, kanpoko espezialista bati azterketa gehigarri bat egitea eskatuko diogu, gorabehera horien jatorria identifikatzeko".

Asteburuan hasiko dituzte Altzolako San Joan jaiak, egitarau oparoarekin

Ekainaren 23an egingo dute San Joan sua, 22:30ean

Ainhoa Andonegi

Ekainaren 24a da San Joan Eguna, eta herri askotan ospatzen dituzte festak. Urteko egunik luzeena eta gaurik motzena izaten da ekainaren 23koa, eta udari ongietorria egiteko jaiak izan ohi da egun horretakoa. Ekigain izenez da ezaguna, hain zuzen ere, ekia edo eguzkia punturik gorenean dagoen sasoi delako, eta, hainbat teoriaren arabera, *ekain* hilabetearen izena bera ere hortik dator. Elizak San Joan Egunarekin lotu zuen festa hori, eta Altzolan ere haren omenez egiten dituzte jaiak.

Egitarau zabala

Bihar hasiko dituzte festak, Ivan DJaren saioarekin, eta biharko, umeentzako jolasak, txokolate-jana eta rock kontzertua antolatuko dituzte. Domekan, berri, herri-bazkaria egingo dute. Par-

te hatu nahi duenak 635 75 34 47 telefonoan eman beharko du izena. San Joan bezpera egunean botako dute txupinazo ofiziala, San Joan arbola jarriko dute eta gauean sua egingo dute, errekan.

Hilaren 24an amaituko dituzte jaiak, eta egun horretan ez dira faltako San Joan eguneko prozesioa, dantzak, DJak eta sardina-jana. Egitarau osoa agendan aurkituko duzue.



lazo San Joan suaren irudia. ALTZOLAKO AUZO ELKARTEA

'Nun ibili haz?' izeneko diskoa kaleratu du Aterkings musika taldeak

A.A.

Aterkings talde historikoak hirugarren LPa kaleratu berri du, bi hamarkadaren ondoren, *Nun ibili haz?* izenburupean. Hain zuzen ere, galdera erretoriko batekin itzuli dira taldeko bost kideak oholtzara; ohi bezala, rock doinuekin.

Xabier Navaroren Musikorta estudioetan grabatu dute lana, eta hamahiru kantako diskoa argitaratu dute; horietako hamar, euskaraz.

Ibilbide oparoa

Aterkings musika taldea Markinako eta Elgoibarko

bost lagunek osatu zuten 2000. urtean; tartean, Alberto Gonzalez eta Martxelo Mendizabal elgoibartarrak. *Rock'n'roll* diskoa kaleratu zuten 2005ean eta *Aterqueens* 2006an. 20 urteren ostean etorri da taldearen hirugarren lana.



Taldeakideak. PATXI BONBERENEA



Diskoaren azala. IGOR AIZPIRI

Akuatloiarekin ireki dituzte Mintxetako igerilekuak



Akuatloia ireki bat. ARKAITZ ORTEGA

Asier Orbea

Zapatuan hasi zen bainu-denboraldia aire zabaleko Mintxetako igerilekuetan, eta Akuatloian parte hartu zuten gazte- txoak izan ziren uretara sartzen aurrenekoak. 30 gaztetxok parte hartu zuten, hiru adin taldetan banatuta. Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatzen du Akuatloia, eta hirugarren ekitaldia izan da aurtengoa; lehena Olaizaga kiroldegian egin zuten, eta Mintxetan egin dituzte azken biak.

Igeriketa eta atletismoa

Antolatzaileen berbetan, proba erakargarria da, parte-hartzaileek igeriketa eta atletismoa uztartzen

baitituzte. "Lehiatz harago, kirolaz gozatzeko, norberaren mugak gaitzetzeko eta lagunartean une atseginak pasatzeko aukera bikaina izan zen. Horregatik, boluntario guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, eta baita Udalari ere. Haien ekarpenari esker, Akuatloia arrakastaz egitea lortu genuen", adierazi dute. A kategorian Zohargi Oartzabal eta Ander Pizarro gailendu ziren; B kategorian, Nahia Ortega eta Eñaut Zinkunegi; eta C kategorian, Ekain Soto.

Festa giroan inauguratu zuten bainu-denboraldia, Akuatloiaz gainera DJ saioa eta dantza ur-banoen erakustaldia egin baitzituzten.

Ikasturte amaierako festa egingo dute martitzenean Lilan

17:30ean hasiko dituzte ospakizunak, eta, besteak beste, jolas feministak eta mokadutxoak izango dituzte

A.A.

Lila Emakumeen Etxean ere iritsi dira ikasturte amaierara, eta festa giroan hartuko dituzte oporrak. Datorren martitzenean, ekainak 23, ikasturte amaierako jaiak egingo dute, eta, horretarako, hainbat ekintza antolatuko dituzte.

Udaberriko ikastaroen balorazioa egingo dute, batetik, eta, horrekin batera, hurrengoetarako proposamen berriak jasoko dituzte. Era berean, Berdintasun Sailean azken hilabeteotan egingandako lanaren berri emango dute arduradunek. Hori guztia jai

baten bueltan ondu dute, eta ekintzetan, ikastaroetan eta zerbitzuetan parte hartu izan duten emakumeak, irakasleak eta aholkularitza zerbitzuetako kideak gonbidatu dituzte; baita herriko emakumeak ere, oro har. Elkar hobeto ezagutzeko mahai jolas feministak eta beste hainbat dinamika prestatu dituzte. Hainbat ikastarotan eta ekintzetan urtean zehar egindako lanak ezagutzeko aukera ere izango dute bertarartzen direnek. Amaieran, mokadutxoak egingo dute. Gonbidapena irekia da, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

LaRoita erronka: inoiz baino lehiakide gehiago, eta betiko izaera

Goia jotzeke jarraitzen du LaRoita erronkak, azala berrituz eta hazten segitzen baitu bost edizio jokatu eta gero. Iaz, emakumezkoak aritu ziren lehian lehendabizikoz; aurten, mistoetan lehiatuko dira

Asier Orbea Ostolaza

Hamabi izango dira lehiakideak, lau taldetan banatuta, era honetan: Jaujar taldea – Garazi Catalan, Gorka Melgosa eta Eneko Barruetabeña; Wonga – Jon Beristain, Sarai Sanchez eta Ander Armendia; Roketxe – Ander Aranberri, Alazne Martinez eta Egoitz Arrizabalaga; Gaztienak – Ane Arregi, Iker Beristain eta Aimar Elizburu. Taldekide baikoitzak kirol bat egingo du: Mutrikuko portuan igerian lehenak, Mutrikutik Elgoibarrera bizikletan bigarrenak eta Kalegoen plazatik Karakatera hirugarrenak. Taldeek mistoak izan behar zutela zehaztu zuten antolatzaileek, eta beste baldintza bat ere jarri zuten: taldekideek "lagunartekoak" izan behar zuten; hau da, kuadrilla, kirol talde edo kinta berekoak, edo bikote-harreman batean daudenak, bestela.

Kirola eta festa


Uztailaren 4an jokatu dute LaRoita erronkaren seigarren ekitaldia, 09:30ean, Mutrikuko portuan hasita. Ohitura duten legez, Youtuben zuzenean emango dute proba, hasieratik bukaerara, eta hiru esatariren komentarioekin: Unai Astiazaran, Gartxot Fidalgo eta Gorka Iriondo. LaRoitakoak dagoeneko hasiak dira egunerako giroa berotzen. Ez baita kirol erronka soila: porra, sariak, bazkaria, kontzertuak... egun osoko egitaraua prestatzen dihardute.

Lehiakideek ere nabari dute eguna gerturatzen ari dela, kaleran askok galdetzen baitiete nola ari diren moldatzen entrenamenduetan. Beharbada, porran noren alde apustu egin jakin nahiko dute. Talde irabazleak bigarrenari zenbat denbora aterako dion asmatu beharko dute porran parte hartu nahi dutenek. Egunean bertan banatuko dute saria, eguerdi inguruan Maalan egingo duten sari-banaketa ekitaldian. Horren ostean, Mauxitxa txarangak gidatuko duen kalejiran joango dira bazkaltzera gazte guztiak.

600 lagun inguru bazkarian

Antolatzaileek diote 600 bat gazte inguru batuko direla bazkarian. Kalegoen plazan egin zuten iazkoa, eta Sigma-ko aparkalekuan egingo dute aurtengoa. Iaz bezala, Eusko Parrillarekin eta Lizagasar Sagartokiko produktuekin egingo dute. Hain zuzen ere, LaRoitakoek Instagramen duten kontuaren bidez eman behar da izena, eta ekainaren 21a izango da azken eguna.

Youtuben emango dute proba; hasieratik bukaerara, eta hiru esatari ariko dira zuzenean kontatzen



Erronka iragartzeko kartela. LAROITA



Aurtengo hamabi lehiakideak eta antolatzaileak, Mintxetan. ASIER ORBEA



450tik gora lagun elkartu ziren iaz bazkarian. ASIER ORBEA



Kaleak girotuko dituzte herriko gazteek. ASIER ORBEA



Kontzertu bat gaztetxean. JOSU ATXA



Iazko lehiakideak, Karakaten. ASIER ORBEA



Antolatzaile taldekoak, iaz, Karakate gainean. ASIER ORBEA

Denboraldi amaierako festa egin du Sanlo eskubaloi klubak



ROBERTO SANCHEZ

Sanlok eskubaloiaren bueltan eraiki duen komunitatea bazkari baten bueltan elkartu zen joan zen zapatuan, denboraldia jai-giroan agurtzeko. Bazkalostean, urteko jokalarai aipagarrienei oroigarriak banatu zizkieten –goiko irudian sarituak–. Mikel Izeta Saria ere banatu zuten. Deleatuek egiten



ROBERTO SANCHEZ

duten lanari aitortza egiteko sortu zuten saria, iaz, eta bigarregoa Jose Ignacio Lenizi eman zioten. Aitortzen ostean, dantzaleku bihurtu zuten aparkalekua. Sanloko 2025-2026ko jokalarai aipagarrienen zerrenda eta argazki gehiago, barrena.eus-en

Rodriguez, txapelkunorde Europako Txapelketan

Belgikako Bredene hirian jokatu dute Europako Kulturismo Natural Txapelketa

Asier Orbea BELGIKA

Europako Txapelketan urrezko domina irabaztetik gertu geratu da Iosu Rodriguez Arroyo kulturista elgoibartarra. "Une batean, irabazle aukeratu behar nindutela pentsatu nuen, eszenatokian ezin hobeto moldatu nintzela uste baitut. Prestatuta eta pentsatuta neraman moduan irten zitzaidan nire ariketa, baina txapelkunorde izatearekin konformatu behar izan nuen; ez dago besterik", adierazi du. Edonola ere, lortutako emaitza

horrekin eta aurreko asteetan Valentzian eta Riminin jokatutako txapelketetan lortutakoekin "oso pozik" dagoela adierazi du; batik bat, pozik dago Europako Txapelketara aurkeztu duen gorpuzkerarekin. "Nire bizitzako fisikorik onena, momentuz", dio.

Atsedean hartzeko tarterik gabe, hasi da Munduko Txapelketarako prestatzen. Espainiako Txapelketan lortu behar du sailkapena, Kordoban, urriaren 10ean.



Iosu Rodriguez, Europako Txapelketan. UTZITAKOA

Palako finalak izango dira gaur

24 bikote lehiatu dira Lagunak taldeak antolatzen dituen txapelketetan, eta lau onenak ailegatu dira finalerara. Gaur izango dira, 18:30ean: Ander Conde/Sergio Martinez vs Xabier Arrizabalaga/Josu Espilla, gizonezkoetan; eta Yolanda Mateos/Maialen Labrador vs Maria Badiola/Lidia Suarez, emakumezkoetan.



ASIER ORBEA

Lariz, Euskal Herriko txapelkun beteranoetan

Ardibidepikua Bertikalaren bosgarren ekitaldia jokatu zen Izaban zapatuan –3,2 kilometro eta 800 desnibel positiboa–, Kilometro Bertikalen Euskal Herriko Txapelketa jokoan zela. Iñigo Lariz laugarren sailkatu zen, Aitor Ugarte irabazlearengandik 2:57ra. Gainera, Lariz gailendu zen beteranoen artean.



CATT MORCAIKO

Gazteen Gipuzkoako Itzuliko lehen etapa hartuko du bihar, zapatua, Mendarok

Eskualdeko sei txirrindulari ariko dira; Elgoibarko Besa-Geminis taldekoak bost

Ainara Argoitia MENDARO

Idiazabalen jokatzekoa duten aitzinetaparekin hasiko dute gazte mailako Gipuzkoako Itzulia, gaur. Hiru etapa izango dira guztira, eta estreinakoa Mendaron hasi eta bukatuko da, bihar, hilak 20; iragarpen guztien arabera, bero handiarekin. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatu du biharkoa, eta 105,3 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute txirrindulariek. 15:10ean abiatuko da tropela, Herriko Enparantzatik, eta bi itzuli egin beharko dituzte Bergarako Labe

Garaietaraino. Bide hori osatuta, Kalbario igo beharko dute, Sasiolan gora. Handik Mutrikura jaitsi eta Olatzen gora hartuko dute gero, eta Arribinieta igoko dute. Biak dira bigarren mailako mendateak, Kalbario zein Arribinieta. Arribinietatik Kalbariora egin, eta helmugako bidea hartuko dute. Ondo bidean, 17:42 alderako izango dira azkarrenak Mendaron.

Beste bi etapak

Andoainen hasi eta amaituko da bigarren etapa, etzi. 107,3

kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, eta hirugarren mailako bi mendate igo. Itzulia astelehenean amaituko da, Seguran. Hiru etapetan laburrena izango da astelehenekoa, baina baita gogorra ere, bost mendate igo beharko dituzte-eta 76 kilometroan: bigarren mailako bi, Barbari eta Minas, eta hirugarren mailako hiru: Lierni, Atagoiti eta Aztiria.

Itzulian Debabarreneko txirrindulariek ere parte hartuko dute. Sei laguneko taldeak osatu behar dira, eta Elgoibarko



Besa-Geminis taldeko gazteak. LAGATAKOA

Besa-Geminis taldetik, adibidez, hamabi txirrindulari ariko dira, bi taldetan. Debabarrendarrak dira bost txirrindulari –Iñaki Astigarraga, Fran Jayder Molina, Aimar Gonzalez, Unai Cornejo eta Aratz Goikoetxea–, eta bergararrak dira besteak –Manex Larrañaga, Beñat Pla-

za, Harkaitz Ilarduia, Lier Aranguren, Lier torres, Unai Modragon eta Izortz Llodio–. Hala ere, beste debabarrendar batek ere hartuko du parte Itzulian: Tolosa taldearekin aritzen Ander Albizu mutrikuarrak; txirrindularitza egokituan lehiatzen da.

Udari ongiatorria egiteko akelarrea antolatu dute San Joan bezperarako

A.A.

Akelarrea antolatu du In Leike kultur elkarteak ekainaren 23rako, San Joan bezperarako. Usadio zaharrei eutsi eta herriko eragileen arteko sinergiak sortzeko antolatu zuten, estreinakoz, 2023an, aurrez Amagoia Zabalak hasitako bidetari jarraituz, eta, geroztik, egun berezia da ekainaren 23a Mendaron. Udalaren laguntzarekin ez ezik, herriko eragileen eta norbanako askorenarekin ondu dute egitaraua, eta, aurreratu dutenez, "gau magikoa" izango da.

Sua izango da protagonista nagusia, eta haren bueltan osatuko dute ikuskizuna. 22:00 aldera abiatuko dira ikuskizun-

nean parte hartuko dutenak Trinitatetik plazara, kalejiran, eta, ondo bidean, 22:15ean hasiko dute ikuskizuna. Mendaroko dantza eskolako ikasleek hainbat dantza dantzatuko dituzte suaren bueltan, eta, erratza eskuan hartuta, deabru, sorgin eta intxixu txikiek kalejira egingo dute plazan. Irrintziak ere izango dira, akelarre orotan ohi legez, eta euskal mitologiako pertsonaiak bistaratuko dira, bai eta *Mari* eta *Akerbeltz* erraldoiak ere. Era berean, Txoko Txiki egitasmoek ere parte hartuko dute. Maiatzean egin zuten orientazio jolasean parte hartu zutenek idatzitako ametsak eramango



lazo akelarrea. A. ARGOITIA

dituzte haiek kutxa batean, eta sutara botako dituzte, beteko diren itxaropenarekin. "Amets egiteko aukera emango diogu geure buruari, nekez dagoelako hori baino gauza ederragorik", esan dute.

Oholtza bete artista, urteko azkenean



AINARA ARGOITIA

Sailkako kontzertuak amaituta, asteazkenean ikasturte amaierako jaialdia egin zuten Ameikutz musika eskolako ikasleek, Herriko Enparantzaren. Abesbatzako haurrek hasi zuten jaialdia, lau kantu interpretatuz, eta, ondoren, taldeka igo ziren artista gazteak ohol-tzara, irakasleek lagunduta. Euskal kantuak eta ingelesezko beste hainbat jo zituzten, eta gozatu egin zuten publikoak. Herriko Enparantza bete egin zen emanaldirako.



Tchin Tchin
UDA

**BESTE 2 BETAURREKO
EURO BAT GEHIAGOAN***

ETA 3.A ZURETZAT EDO OPARITZEKO

AFFLELOU ADVENTURERE, AFFLELOU CIAO, AFFLELOU JEAN modeloak

*Eskaintza baliagarria 2026-06-30era arte, Espainian eta Andorra. Alain Afflelou optika guttietan. Buzi baldintzak optikan edo afflelou.es-en. Buzi-erabiltzaileak zuzen inguruko enpresen laguntza behar du 1,25 euroko-erabiltzaileentzat.

ALAINAFFLELOU
Optico, Audiologo

**SAN BARTOLOME
KALEA, 10
ELGOIBAR**

943 74 37 34

Eskatu txanda
afflelou.es



Literaturaz euskaraz gozatu nahi dutenen kluba handitu nahi dute uda osterako

2024-2025eko ikasturtean sortu zuen Mendaroko Udalak helduentzako irakurketa-kluba, irakurzale batzuek proposatuta, eta jarraipena izan du aurten. Bederatzi saio egin dituzte, Asier Serrano idazleak gidatuta

Ainara Argoitia MENDARO

Asteazkenean izan zuten Mendaron helduen irakurketa-klubekoek ikasturteko azken saioa. Urrian hasi zuten ikasturtea, eta, geroztik, bederatzi saio izan dituzte; hilean bat, gutxi gorabehera. Asier Serrano idazleak (Eibar, 1975) gidatu ditu saio guztiak, eta hark proposatutako liburuak landu dituzte taldean, genero eta gai askotarikoak: Harkaitz Canoren *Fakirren ahotsa* eleberria; Uxue Alberdiren *Hetero* ipuin liburua; Andu Lertxundiren *Otto Pette* eleberririklasikoa; Karmele Jaioren *Maitasun kapitala* eleberria; Pello Lizarralderen *Lanbroa* eleberria; Arantxa Urretabizkaiaren *Bidean*

*ikas*ia kronika-liburu edo saiera artekoa; Art Spielgmanek sortu eta Julen Gabiriak euskaratutako *Maus* komiki liburua; Begoña Lizarren *Mundu zitaren kontra* eleberria; eta Xabier Mendigurenen *Oso latza izan da* eleberria. Talde txikian batu, eta liburu horien irakurketak sortu dizkien zalantzak, kezak, hausnarketak, jakin-minak... partekatu dituzte bildu diren aldiro, eta ariketa aberasgarria izan zaiela aitortu dute parte-hartzaile guztiek. Izan ere, irakurtzea lagungarria da, nor bere burua ez ezik, mundua bera ere ezagutzeko, baina irakurritakoa beste batzuekin partekatzeak laguntzen du besteen tokian

jartzen eta norberarenak ez diren ikuspuntuetara hurbiltzen. Horixe sustatzen dute, hein handi batean, irakurketa-klubetan: lagunei entzun eta zalantzari ate bat zabaltzea; erantzun borobilik ez dagoela jabetzea. Baina, hein berean, askotan lotu antzean izaten den irudimenari hegoak zabaltzea ere bada irakurtzea; hegoak zabaldu eta hegan egiteko bidea ematea irudimenari, literaturaren bidez.


2024ko ikasturtean sortu zuen Udalak helduen irakurketa-kluba, herriko irakurzale batzuek eskatuta. Guraso elkartean aritu ziren garaian haurrentzako *Letren harrietatik jolasean* irakurketa-kluba sortu zuten ira-



Irakurketa-klubeko kide batzuk, eguazteneko saioan, Asier Serrano dinamizatzailearekin. AINARA ARGOITIA

kurzale berberak egin zuten proposamena. Hala sortu zuten Miszelania irakurketa-kluba, Mireia Delgado bitartekari literarioaren gidaritzapean (Durango, 1984). Orain, berriz, taldea sendotu egin nahi luke, eta parte hartzera deitu dituzte herritarrek datorren urterako. Nabarmendu dute irakurketa-klubean parte hartzeko

ez dela ezelako ikasketa mailarik izan behar; alegia, ez dagoela asko irakurria izan beharrik, ez eta jendaurrean hitz egitera ohitua egon beharrik ere. Euskara ulertzea da baldintza bakarra, euskaraz direlako saioak. Helburua, berriz, irakurketaz taldean gozatzea da, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea, elkar aberastea.



ALAITZ VIVES
IRAKURLEA

"Bereziki aberasgarria da besteen begietatik testu berari begiratzea"

"Irakurtzea bera bakarkako aktibitatea izanik, ez da erraza izaten irakurritakoa patxadaz beste norbaitekin partekatzeko aukera izatea. Eta, hain zuzen ere, irakurketa-klubak horretarako aukera ematen digu. Bestetik, bereziki aberasgarria da besteen begietatik testu berari begiratzea, norberak ikusi ez eta besteek ikusi duten horri erreparatzea. Taldekideei entzundakotik bigarren irakurraldi bat egitea da".



EUKENE GURRUTXAGA
IRAKURLEA

"Miragarria da irakurketa-klubean sortzen den giroa"

"Umeen irakurketa-klubean hartu nuen gozatuagatik animatu nintzen izena ematera. Eta, egia esan, esperientzia ederra izan da. Ikaskuntza handi bat ere izan da ikustea liburu bera zenbat modutara irakur eta uler daitekeen. Miragarria da sortzen den giroa; miragarria, segurutzat eman duzun hori zalantzan jartzea beste batek esandakoak entzunda, edo alderantziz. Idazkuntzaz eta idazleez ere asko ikasi dut, eta bestela irakurriko ez nituzkeen liburu asko irakurri ditut".



AMAIA LOPETEGUI
IRAKURLEA

"Luxu hutsa da Mendaron irakurketa-kluba izatea"

"Idazle-irakurle harremana mugatua da, nor bere bizipenetatik interpretatzen duelako irakurtzen duena. Irakurketa-klubeko lagunen bidez interpretazioak ugaritu egiten dira, argitu egiten dira zati ilunak, aberastu egiten da guztia, adin askotariko kideen azalpenen bidez. Dinamizatzaileak liburua eta idazlea testuinguruan kokatzen ditu, dena ulergarriago egiteko. Horrela, borobildu egiten da esperientzia. Luxua da Mendaron irakurketa-kluba izatea; irrikan egoten naiz eguna iristeko".



IRATI MENDIKUTE
IRAKURLEA

"Asko ikasi dut irakurketa-klubean"

"Bestela aukerarik emango ez nien liburuei aukera bat eman eta idazle berriak ezagutzeko eman nuen izena, bereziki, bai eta euskaraz gehiago irakurtzeko ere, gaztelaniazko modako liburuak irakurtzeko joera nuelako. Eta, egia esan, oso lagungarria izan zait irakurketa-kluba horretarako guztirako. Era berean, oso aberasgarria egin zait liburu beraren inguruan beste batzuekin tertulian aritzea. Asko ikasi dut".



IÑAKI GOITIA
LIBURUZAINA

"Irakurlea ere liburuaren egile bihurtzen da"

"Irakurketaren ariketa bera adimena intelektualki estimulatzen eta pentsamendu kritikoa sakontzeko jardura aberasgarria bada, irakurketa-klubean sortzen den komunitate batean egiteak aberastasun hori are gehiago indartzen du. Beste irakurleek obra bakoitzean idazleak esan duenaren inguruko interpretazioan hausnartzeko aukera ematen digu, baita idazleak bete gabe utzi dituen hutsune horiek betetzeko aukera ere; esan ez dena esan dena baino garrantzitsuagoa da askotan, irakurlea ere liburuaren egile bihurtzen baita horrela".



Ermuko I. Mundialitoko jokalariek, Ongarai eskolako kantxan. MIKEL MADARIETA

Kirola aitzakia hartuta, komunitatea indartzea eta elkartasuna sustatzea du xede Mundialitoak

Colibresek antolatutako txapelketa bihar jokatuko da, egun osoko egitarauarekin

Ander Gomez

Bihar, ekainak 20, jokatuko da Ermuko II. Mundialito "antirrazista, antipatriarkal eta antifaxista", Colibres Ermuak antolatuta. Ongarai eskolako jolastokian jokatuko diren futbol eta eskubaloio txapelketak ardatz izango dituen hitzordua askotariko kultur ekintza, tailer eta gune komunitarioz osatuko da.

Iazko lehen edizioaren ondoren, helburuari eusten diote antolatzailleek: "Arrazismoaren kontrako borroka, kulturartekotasuna sustatzea eta espazio publikoak elkargune bihurtzea dugu helburu, bereziki gazteei zuzendutako proposamen ireki eta parte-hartzailearekin".

Futbol eta eskubaloio lehiak

Jardunaldia 10:00etan hasiko da, Ongaraiko kantxan, aurkezpen labur batekin eta txapelketaren arauen azalpenarekin. Ondoren, futbol eta eskubaloio partidak hasiko dira. Berrogeita hamar lagunek eman dute izena, baina joaten den edonork izango du parte hartzeko aukera: "Iaz, egunean bertaratu zen jende gehiago

batu zen lehiara, ez dugu arazorik momentuan taldeak moldatzeko edo berriak sortzeko".

Tailerrak, Txiki Lekua eta azoka
Txapelketak iraun bitartean, umeentzako txoko berezia egongo da, ur-jolasekin, aurpegi-margotze eta eskulan tailerrekin eta sormena lantzeko ekintzekin.

11:00etatik 13:00era, "migratzaile ari diren pertsonentzako postalak" tailerra egingo dute; collagea eta serigrafia landuko dituzte.

12:00etan, ume eta familientzako ipuin-kontakteta egongo da, Dariana Noguera abeslari eta kultura ekintzaile venezuelarraren eskutik.

Merkadittoa izeneko azoka autogestionatua ere jarriko dute aurten. Bertan edonork muntatu ahal izango du bere postua: fanzineak, artea, landareak, janaria, eskulanak, bigarren eskuko objektuak... eskaini ahal izango dira. Prezioak norberak erabakiko ditu edo trukean oinarrituko da. Antolatzailleek azpimarratu dute helburua ez dela irabazia, baizik eta elkarri laguntzea eta partekatzea.

Herri bazkaria eta hitzaldia

14:00etan, herri bazkaria egingo dute. Doakoa izango da eta ez dago izena eman beharrik, hara joaten den edonork jan ahal izango du. Menua makarroiak izango dira, begano, begetariano eta halal aukerekin. Eta 15:00 aldera, *Erregularizazioa orain* hitzaldia egingo du Omra El Qrichek, Colibreseko kideak.

Finalak, sari-banaketa eta festa

16:30ean, futbol eta eskubaloio finalak jokatuko dira, eta 18:00etan, sari eta diploma banaketa izango da. Sebastian Monsalve gazte kolonbiarrak gidatuko du, sortu duen Romina Malaspina pertsonaia interpretatuz. Jarraian, *Rumbarekin sendatzen naiz* saltsa-bachata queer tailerra emango du, "dantza eta ahalduntzea uztartuz, eguna festa giroan bukatzeko".

Antolatzailleek azpimarratu dute Mundialitoa ez dela egitarau itxi bat, baizik eta etengabe moldatzen den espazio bat: "Jendeak etorri, geratu eta parte hartzeko aukera izango du, kirolean, tailerretan, bazkarian zein bestelako ekintza guztietan".

Su, irrintzi eta piroteknia artean ospatuko dute San Joan bezpera

A.G.

Martitzenean izango da aurten go San Joan gaua, baina Euskal Birusak eta Txindurri Dantza Taldeak ohiko ekitaldi eta ikuskizunekin egingo diote ongietorria urteko egunik luzeenari.

22:30ean, akelarrea hasiko dute Txindurrikoek, eta, hain zuzen ere, eurek piztuko dute sua. Aker edo sorgin, mamu edo deabru, ez dute ezagutzera eman zein pertsonaia irudikatuko dituzten, baina ziur ikuskizun original bezain ikusgarria eskainiko dutela.

Sua amatatuta, irrintzi lehiaketa hasiko da. Herritar guztiek parte hartu ahal izango dute; plazako kioskora igo eta oihurik

luze eta indartsuena botatzen saiatuko dira. Gazteentzat Xiripot liburu-dendan gastatzeko 30 eta 20 euroko bonuak izango dira sariak; helduentzat, Quetzalen erabiltzeko 60 euroko bonua.

Lehiaketaren ostean, uzta eta elikagaiak gordetzeaz eta gaizkileak suan erretzeaz mintzo diren San Joan koplak kantatuko dituzte herritar guztiek.

Aurten, legedi aldaketak direla eta zalantzan egon bada ere, azkenean ez da faltako erlojuak gauerdia jotzean ateratzen den zezensuzkoa. Umeen atzetik korrika egiten duen bitartean, piroteknia argi, burrunba eta txinpartaz beteko ditu plazako bazterrak.




Zuziak eta bengalak eskuan piztu zuten iazko sua. MIREN AJA

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

RIF
ITURGINTZA
KONPONKETAK
Valdespina Markesa 16 · ERMUA
605 71 10 81



Goizez jokatzen dira eskubaloio eta futboleko ligaxkak; arratsaldean, finalak. M.M.



Iazko Mundialittoa itxi zuen DJ saioa. M.M.

50
ARTARRAI
MEÑDI TALDEA · ERMUA
Ekinez ekin bidean darrai

OINAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
Erdikokale 1, 1. A - 48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Martxan da Ongarai auzoko eta Aldapa kaleko bizilagunentzako taxi-zerbitzua

Behin-behineko neurri gisa ezarri du Udalak, bertako igogailua konpondu bitartean

Ander Gomez

Apirilaren 1ean geratu zen San Pelayo eta Aldapa kaleak lotzen dituen igogailua. Aurretik, Aldapa eta Ongarai artekoak ere arazoak izan zituen, eta, bi kasuetan, bilera informatiboak egin dira auzotarrekin. Azkena apiril bukaeran izan zen, eta, Udaleko ordezkarietz gain, Ermuko igogailuen mantentzearen ardura hartu berri duen Orona enpresakoak ere bertaratu ziren.

Azaldu zuten mantentze-enpresaren aldaketak eta enpresa ohiarekin izandako komunikazio arazoak, piezak eskuratzeko zailtasunekin batera, prozesua luzatu zutela eta konponketek hamabi aste iraun zezaketela.

Bizilagunak haserre zeuden, eta igogailuak adinekoentzat eta mugikortasun urriko pertsonentzat funtsezkoak zirela nabarmendu zuten. Aurreko hilabeteetan hainbat lagun trabatuta geratu zirela, denbora luzez itxaron behar izan zutela eta zerbitzu teknikoaren tratu desegokia salatu zuten. Behin-behineko irtenbideak eskatu zituzten; tartean, taxi zerbitzua.

Udalak esan zuen zerbitzu hori lortzeko lanetan zebilela, eta



Matxuratutako igogailuaren sarbide bieran itxarongo du taxiak. A. GOMEZ

urtea bukatu aurretik ezartzea zaila ikusten zuela zioen arren, astelehen honetan jarri du indarrean. Doako zerbitzua da, eta astegunetan zein asteburuetan egongo da aktibo; hori bai, orduz gero zehatzean. Puntuetan eta erdian matxuratutako igogailuaren San Pelayoko sarbidean egongo da taxia, eta ailegatze-ordenaren arabera igoko ditu bizilagunak. Era berean, laurdenetan eta laurden gutxitan Aldapako sarbidean egongo da, bizilagunak jaisteko.

Rosi Cid zinegotziak zerbitzua "zentsuz" erabiltzeko eskatu die

herritarrei, eta gogorazi du adinekoei, mugikortasun urriko pertsoneri, haur-kotxeak darmatzaten familiei eta erosketa edo zama handiak garraiatu behar dituzten auzotarrei zuzenduta dagoela.

Igogailuaren konponketa-lanak San Pelayo eta Aldapa kaleen arteko igogailuaren matxura aztertuta, motorra ordezkatzeko erabaki dute, 30.402,82 euroko kostua izango duen esku-hartzearekin. Makina berria uztailean jasoko dute, instalazio-lanak hilaren 13ko astean hastea espero dute eta lau aste epean egitea aurreikusi dute.

Ordutegia

Astelehenetik barikura

- 07:00etatik 08:00etara
- 08:45etik 11:15era
- 12:00etatik 14:30era
- 15:30etik 16:30era

Zapatu eta domeketan

- 10:00etatik 13:00etara

Spinning gela berri egin dute

Hamabost urte zituzten 30 bizikleta ordezkatu egin dituzte



Ordezkatutako Keiser bizikletak. E.U.



Life Fitness IC5 bizikleta berriak. E.U.

Ziklo indoor edo spinninga Udaltan eskaintzen den jardura nagusienetakoa da. Bizikleta estatikoan, musikaren laguntzarekin eta begirale baten gidaritzapean egiten diren saioak dira, eta sistema kardiobaskularra, sasoi fisikoa eta erresistentzia lantzeko egokiak dira. Lagun gehien biltzen dituen ekintzetako bat izanik eta erabiltzaile haiei zerbitzu hobea eskaintze aldera, ekipamendu oso berritza erabaki du Udaleko Kirol Sailak.

Ondo zeuden hiru bizikleta kenduta –hirugarren solairuko erabilera libreko gimnasia eraman dituzte–, guztiak ordeztu

dira. Bizikleta berriek entrenamenduko datuak errazago ikusteko koloretako pantaila digitala dute, aplikazioekin konektatzeko aukera ematen dute eta diseinu ergonomikoa daukate. Inbertsioa 51.000 eurokoa izan da.

Eskoletara batzeko aukera

Ziklo indoorreko saioek 55 minutu irauten dute. Astelehenetik ostegunera bi saio egiteko aukera dago, 33,25 euroko kostuarekin abonatuentzat eta 51,40 euroan abonatu ez direnentzat. Bariku, zapatu eta domeketako saio bakarrek 17,90 euro edo 27,75 euroko kostua dute, hurrenez hurren.



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12-1. - 20600 EIBAR
943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Irribarreetan adituak, etor zaitez gu ezagutzera



Ainhoa Zulueta doktorea





Kiskako Xabi eta Iker Perez, epaileekin. L.E.



Sagarrako Jesus Gonzalez. L.E.



Batzokiko Souad El Hafidi. L.E.

Kiskak jaso du pintxo onenaren saria, Sagarrak tradizionalarena eta Batzokiak maridajearena

Hiru epaimahairekin eta bi fasetan erabaki dituzte pintxo lehiaketako irabazleak

Ander Gomez

Joan den aste osoan egin zen Lobiano Gastronomia Elkarteak antolatutako pintxo lehiaketa. Herritarrek astelehenetik das-tatu ahal izan zituzten aurten-go aldira aurkeztutako hoge proposamenak. Epaimahaideek, berriz, martitzenean hasi zuten taberna eta jatetxeetako ibilbidea, hamabi finalistak aukeratzeko ardurarekin. Aurkeztutako pintxo kopuru handia dela eta, bi taldetan banatu behar izan ziren hasierako balorazio fasea egiteko.

Lehen epaimahaia Zigor Iturrieta sukaldari eta telebistako aurkezleak, Donostiako Narru jatetxeko Tannya Ruizek eta Lobiano elkarteke Jesus Portugalek osatu zuten. Bigarrenean, berriz, Itziarke Salegi jatetxeko Tasio Fernandez-Quejok eta Oscar Aymerichek, eta Lobiano elkarteke kide eta Mallabiko Trabakua Behekoa jatetxeko sukaldari Christian Mendezek parte hartu zuten.

Epaimahai biek antolatzaileei aitortu zieten aukeraketa egitea ez zela "lan erraza" izan, aurkez-

tutako pintxoaren kalitate handia zela eta. Azkenean, establezimendu hauek jaso zuten finalerako txartela: Arkupe, Batzokia, Burduntzi, El Rincon, Giroa, Kiska, Lau Bide, London, Sagarra, Titanic, Urkaregi eta Zutabe.

Hiru saritu

Gaur zortzi hartu zuten erabakia, baina herritarrei domekara arte laga zieten pintxoak dastatzeko tartea, eta aste honetan eman dituzte ezagutzera irabazleak. Finaleko epaimahaia Ondoan aldizkariko Josema Azpeitia

gastronomia-kazetariak, Zornotzako La Revelia jatetxeko sukaldari eta Michelin izar baten jabe Fernando Gonzalezek eta Jesus Portugalek berak osatu zuten.

Kiska jatetxeko *Basoaren espiritua* izendatu zuten 2026ko Pintxorik Onena. Pintxo Tradizional Onenaren saria, berriz, Sagarra Gastro Pubeko *Arancini basque style* proposamenak eskuratu zuen. Bestalde, Familia Martinez Zabalarekin egindako kolaborazioari esker, bodega errioxarraren ardoekin maridatutako pintxorik onenaren saria ere banatu zen, eta Batzokiko *Ahate arima* pintxoarentzat izan zen.

20.000 pintxotik gora

Lobiano Gastronomia Elkarteak iaz ospatu zuen mende laurdena, eta ez da lehen aldian pintxo lehiaketara hainbeste proposamen aurkezten direla, baina azken urteetan parte-hartzea apalagoa izan da. "Batez ere, pandemiaren ostean, aurreko martxa berreskuratu ezinda genbiltzan", azaldu du elkarteke presidente Jesus Portugalek. Aurten, ordea, ostalarien inplikazioak eta herritarren harrerak aurreikuspen guztiak gaitzitu dituzte. Salmentaren estimazioa 20.000 pintxotan kokatu dute; hauxe dio Portugalek: "Nahiago dugu azpitik jo, baina uste dugu kalkuluzehatzago bat 25.000 pintxotik gertuago egon litekeela".

Sonia Lopez, nagusi Estatuko ultratrailetan

Iazko Hiru Txikiak Traileko irabazlea izan zen Sonia Lopez Bañuelos ermuarra, baina garbi utzi du haren maila ez dela tokiko lasterketetara mugatzen. Espainiako Mendiko Kirol eta Eskalada Federazioak (FEDME) antolatutako ultra modalitateko proben zirkuituan parte hartu du Estatu osoan, eta, denboraldian puntu gehien lortu dituen emakumezkoa izanik, Espainiako Ultra Kopako txapeldun absolutu izendatu dute. Gredosko mendilerroko Galayos erronka izan zen azken proba, eta bertan jaso zituen domina eta 1.000 euroko diru-saria.



Sonia Lopez, podiumean, Pere Aurell gizonetzkoen irabazlearekin batera. FEDME

Herriko bazterrak koloreztatu dituzte Mugartearen 32. Pintura Lehiaketan

Urrunetik zein gertuko parajeetatik etorritako 39 margolarien artelanak bertatik ezagutzeko aukera izan zuten herritarrek

Estibalitz Gonzalez

Beroari eta eguzkiari aurre egin beharrak baldintzatuta, herriko txoko harrigarrienetan sakabanutu ziren margozaleak igande goizez, bazter edo eraikin inspiratzaileen bila. Hogeita hamar helduk eman zuten izena, hiru bertakoak eta baita handik eta hemendik etorritakoak: esaterako, Artziniega, Beasain, Getxo, Lesaka, Asteasu, Trapagaran, Albiztur, Viana, Castro-Urdiales, Gijon, Gasteiz, Bilbo, Donostia, Frantzia... Umeak, osterak, bederatzi izan ziren; gehienak,

ermuarrak, eta gainontzekoak, Durango, Eibar eta Bilbokoak.

Zazpi orduko etengabeko jardunean, goizeko bederatzietan hasi eta eguerdiko ordu biak arte, lana entregatu behar zen unera arte, burua mihietik ia altxatu gabe, pintzelekin, koloreekin, bolumenekin, perspektibekin eta argi-ilunekin jolasean ibili ziren pinturaren artista haiek.

Artelanak amaituta, oraindik eskuetan akriliko eta olio-hondarrekin eta disolbatzaile-usain soinean, elkarrekin baz-



Jorge Ojeak irabazi zuen bertako lehen saria, eta Mugarteako kide Yoli Capeloren eta Beatriz Gamiz alkatearen eskutik jaso zuen. E.G.

kaldu zuten herriko jatetxe baten, Mugarteako epaimahai-kideek sariak nori eman erabakitzen zuten bitartean. Haien esanetan, ez zen batere lan erraza izan: kalitate handiko lan ugari zeuden, eta zein

baino zein irabazle izateko meritua zuten.



Margolanen eta irabazleen argazki galeria ikusteko, eskaneatu QR kode hau.

Sarituak

5-9 urte bitartekoak

Noa Castaño, Leire Serrano, Laia Lombráña, Lur Alberdi, Maria Gisasola

10-15 urte bitartekoak

Irune Serrano, Biel Lombráña, Iraia Garcia, Izar Alberdi

Bertakoak

1. saria: Jorge Ojea
2. saria: Cuco Hernandez
Accesita: Fernando Garcia

Orokorra

1. saria: Iker Mugarra
2. saria: Diego Manuel Fernandez
3. saria: Jose Miguel Arranz
Accesita: Eduardo Alsasua

Dantza eta ardi-mozte saioak, tortilla eta bolo lehiak, sobreak eta sua Goitako sanjoanetan

Ekainaren 19tik 24ra bitartean ospatuko dira Goita auzoko San Joan jaiak

Ander Gomez

Gaur hasiko dituzte Goita auzoko jaiak, 19:00etan, txopoa altxatuta eta txupina botata. 21:30ean, bertso-afaria izango da, eta Sustrai Colinak eta Amets Arzallusek kantatuko dute. Afa-lostea, berriz, Lander eta Mikel trikitilariak girotuko dute.

Zapatuan, umeentzako jolasak egongo dira, 18:00etan hasita, eta nagusiek ohiko patata-tortilla lehiaketa jokatu dute. 22:00etan, rantxeren eta beste-lako kanten emanaldia egongo da. Ondoren, festa giroa luzatzeko ardura izango dute trikitilariak, "oilarrak jo arte".

Domekako meza 13:00etan izango da. Bukatutakoan, Gazte Alairen dantza emanaldia eta ardi-mozte erakustaldia egongo dira. Azken horretan parte hartuko dute Aritz Abendibarrek, artaziekin; Aunitz Arrindak eta Mikel Etxebarriak, makinarekin; eta Janire Artabek, artilearen

maneuari buruzko azalpenak ematen. 17:00etan, bola saria jokatu da, eta, ondoren, txokolata-jana egingo dute.

San Joan bezperako iluntzean, sua piztuko dute Goitako larrean, eta bertaraten diren auzotar guztientzat afari-merienda antolatuko dute.

Jaiak patroiairean egunean bukatuko dira, ekainaren 24an, eguaztena. 18:00etan, sobreak prestatuko dituzte, eta 19:00etan izango da meza. Ondoren, mokadutxo eskainiko diete bertaratutakoak, eta errifin irabazlea ezagutzera emanez agurtuko dituzte jaiak.



Goitako bizilagunak eta herritarrak, ermita parean, iazko jaietan, sobreak prestatu berritan. VALENTIN MUGARZA MARTINEZ

Gaminde, Lizeaga eta Elorz pilotariak garaile Biharko Izarrak txapelketako finaletan

Gaur zortzi jokatu zen Mallabiko pilota txapelketaren 22. aldiko azken hitzordua

A.G.

Apiriletik hona ligaxkan zein kanporaketa fasean nagusi izandako pilotariak ikuskizun bikaina eskaini zuten barikuan, pilotalekuko harmailak bete zituzten ikusleen gozamenerako.

Emakumezkoak izan ziren kantzara ateratzen lehenak, Enara Gaminde eta Goiuri Zabaleta. Gamindek luze jokatzeko hautua egin zuen, pilota lau eta erdiko marratik oso gertu mantenduz eta Zabaleta aurrera eta atzera mugiarazten. Hark, tarte erantzun zuen arren, ezin izan zion erritmoari eutsi, eta 22-15 gailendu zen Gaminde.

Gizonezkoetan, Lizeaga-Elorz eta Beitia-Balardi bikoteek neurtu zituzten indarrak. Azken horiek aurretik jarri ziren markagailuan hasieratik, eta bost tantoko aldea lortzera ailegatu. Baina bigarren zatian Elorzek

konfiantza hartu zuen, eta, Lizeagaren joko bikainarekin batera –boleak, txokoan lagatako pilotak eta sakean bi paretaz irabazitako azken tanto sorpresarekin–, irabazi egin zuten, 22-14.

Sari-banaketan, Pedro Mari Areitioaurtena omendu zuten, Gaminde eta Elorz txapelketako pilotari onenak izendatu zituzten eta irabazleek txapelak jantzi

zituzten, iaz bezala, Gazte Alai taldekoek aureskua dantzatu bitartean.

Profesionalen debutatu zain Malle Euskal Pilota Klubaren txapelketan parte hartu duten finalista gehienek profesionaltarako jauzia egin dute. Aurten goaldetik, Lizeagak eta Elorzek ziurtatu dute debuta. Urrian izango da, Baikorekin.



Pilotariak, antolatzaileak eta sariak banatu zituzten instituzioetako ordezkariak. B.I.

Kalabazak landatu dituzte eskolak eta Ortu Ekologikoen Elkarteak



Kalabazak landatzen. LEIRE MARTINEZ

Aste Santu ostean, Learreta-Markinako LH1eko eta LH2ko ikasleek poti barietateko kalabazahaziak erein zituzten eskolan. Orain, ekainaren hasieran, Mallabiko Ortu Ekologikoen Elkarteak kideekin elkartu dira, eta jada hazitako landareak ortuetan landatu dituzte.

Eskolak bukatu arren, gertutik jarraituko dute barazkion bilakaera; izan ere, zeregin garrantzitsua izango dute: urri bukaeran ospatuko den Gaba Baltzaren aurretik batuko dituzte, ospakizunerako apaingarri beldurgarri bihurtzeko.

EZ ESAN!

MALLABIARI BURUZKO GALDERA-ERANTZUNEN JOKOA
EKAINA



1. Ze urtetan eraiki zen Trabakuako zubia?

- a) 2021
- b) 2020

2. 7 Pago lasterketaren zenbatgarren aldia izan da aurtengoa?

- a) 4. aldia
- b) 3. aldia

3. Ze urtetan batu zen Mallabia UEMA elkartera?

- a) 2008
- b) 2013

4. Zenbat kilometro daude Mallabitik Bilbora? (A8 eta N-637 errepedeetatik joanda)

- a) 44,5
- b) 48

5. Ze eskualdetan kokatzen da Mallabia?

- a) Durangaldea
- b) Debabarrena

Maiatzeko erantzunak:

- 1. Beñat Ugartetxea
- 2. 4kote
- 3. 1995
- 4. 6
- 5. Andoni Monforte

Irabazlea:

Leixuri Solozabal



Dolmenen Ibilbideko Kereixetako-Egia Iparra tumulua industen hasi dira aste honetan

Ekainean bi astez egingo dute bertan lan, Aranzadi Zientzia Elkarteak gidatuta

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Astelehenean, hilak 15, hasi zituzten Dolmenen Ibilbideko aurtengo indusketak. Oraingo honetan, Bergarako terrenoetan dagoen Kereixetako-Egia Iparra tumulua indusketak dute.

Aranzadi Zientzia Elkarteak gidatuko ditu lanak, Jesus Tapia eta Izaskun Egilegor arkeologoen zuzendaritzapean. Tapiak esandakoaren arabera, bi astean egingo dituzte indusketak, eta, azaleratzen diren lanen arabera, beharrezko bada, uztailean zein abuztuan bueltatuko dira bertara. Edozein kasutan, helburua da aurtengo kanpaina bukatu-takoan erabat garbi lagatzea.

Bospasei lagunek dihardute tumuluan lanean: Aranzadiko bost arkeologok, Jesus Tapiak, Manu Zeberio, Izaskun Egilegorrek, Asier Olazabalek eta Txuma Costasek, eta Historia ikasten diharduen Lur Salaberria soraluzetar gazteak. Asteleheneetik zapatura bitartean ibiliko dira lanean.

Orain arte, azaletik

Kereixetako-Egia Iparra tumulua indusketako duten bigarren aldia da honako hau. Lehenengo aldiz, Joxe Migel Barandiaran, Enrike Eguren eta Telesforo Aranzadi ekipo aitzindariak indusketu zuen, 1921ean, baina oso azaletik, egun erdi bakarrik eman baitzuten bertan. Lepoko baten ale bat topatu zuten.

Oraingo honetan, denboraz, jakintzaz, metodologiaz zein



Arkeologoak eta praktikatzailea indusketak egiten, astelehenean. U.M.Z.

teknologiaz, indusketa askoz ere sakonagoa egingo dute; hori horrela, zerbait topatuko duten esperantzarekin ari dira lanean. "Esperantzak badaude, lan azkarra egin zuten-eta lehenagokoek. Seguru aski, kontu handiagoarekin ibiliz gero, badago aukera zerbait berreskuratzeko", esan du Tapia arkeologoak.

Harrobia, altxor bila...

Astelehenean, tumuluaren egitura tapatzen zuen garoz garbitu eta hilobia bera partzialki bistaratu ondoren, zuzenean

kraterrean lanean hasi ziren. Datozen egunotan, berriz, kraterrean barrura segituko dute.

Tapiak esplikatu duenez, argi ikusten da Kereixetako-Egia Iparra tumuluak bazuela bere garaian hildakoak gordetzeko kamera txiki bat, baina hura desagertuta edo suntsituta dagoela, "harrobi bezala esplotatu delako edo altxor bila jendea zuloak eginez edo palankarekin ibili zelako..."

Edozelan ere, eta kasuak eskatzen dituen ezaugarrietara egokituz, Dolmenen Ibilbideko

gainerako monumentuak indusketarako erabilitako metodologia bera erabiliko dute Kereixetako-Egia Iparreko tumuluarekin ere. "Ikusi zer dagoen, tapa kendu, egitura argitu, materialak jaso -baldin badaude-, egitura deskribatu eta aztertu, kronologia aldetik bilatu ea datatzeko modurik badagoen, eta baloratu ea zer aukera dagoen hari balio emateko. Zaharberritzeko lanak egiterik dagoen ikusi, eta ez badu merezi, bere horretan tapatu eta utzi. Asmoa litzateke jatorrizko kameraren gune hura poliki-poliki aztertu eta harrizko piloaren ingurua, ahal den gehiena, azalean jartzea, harrien tratatze eta pilaketa nolakoa den ikusteko".

Neolito-Brontze garaikoa

Dolmenen Ibilbideko gainerako hemeretzi monumentu megalitikoak moduan, Kereixetako-Egia Iparreko tumulua ere, kronologikoki, Neolito-Brontze arokoa da -K.a. 4.000-1.500 urte-.

Orain arte dakitenaren arabera, 80 zentimetro altu-sakon da hilobia, eta 11-12 zentimetro inguruko diametroa dauka.

Kereixetako-Egia Iparra tumulutik gertu beste hainbat hilobi megalitiko ere badaude, lehenago indusketuta eta batzuk berreraikita; Kereixetako-Egia Hegoa eta Agarreburu, adibidez. Eta Iruia laster bukatuko dute berreraikitzen. Horiekien batera, Bergarako terrenoetan Maurleta eta Frantsesbasoa daude.

Sukaldaritza lehiaketa eta, segidan, pintxo-trago berezia

Datorren barikuan, ekainaren 26an, Txerri-masail Lehiaketa egingo dute Itxaropena Erretiratuen Elkarteak. Lerro hauek idazteko unean, bost bikote zuden izena emanda.

Lehiaketa 10:00etan hasiko da, elkarteko terrazan. Itxaropena elkarteko ordezkariak ohartarazi dutenez, parte hartuko dutenek euren eraman beharko dituzte kozinatze behar dituzten tresnak, lapikoak barne.

Gero, 12:30erako gertu izan beharko dituzte masailak, 13:00etarako izendatuko baituzte irabazleak. Lehiaketako epaimahaikide izango dira Eibarko eta Elgoibarko erretiratuen elkarteetatik etorriko diren hainbat kide. Irabazle-erendako saria jan-edan gozoa izango da.

Lehiaketa amaituta, txerri-masailak bazkideen artean partituko dituzte. Bakoitzak hartu ahalko du pintxo eta trago bat, euro baten truke. Tiket bitartez banatuko dituzte pintxoak.

Herriguneko landaredia ezagutarazteko ibilaldi gidatua

Zapatuan, ibilaldi gidatua egingo dute Ander Oñate Ezenarro lorezainaren eskutik. Soraluzeko Baso Biziak elkarteak antolatuta, herriguneko landaredia ezagutarazteko eta "landarediak duen balioa barneratu, duen garrantzia aitortu eta landaredi urbanoaren kudeaketarako praktika onak ikasteko". Beste zenbait gai ere landuko dituzte, espezie inbaditzaileen arazoa eta zuhaitzen identifikazioa, besteak beste.

10:00etan abiatuko dira, Plaza Berritik, eta bizpahiru ordu iraungo du. Ez dago izena eman beharrik, baina, eskertuko luke te jakinaraztea, mezua bidalita: soraluzekobasobiziak@gmail.com.

Indusketen garapena aztergai

Aurten, aspaldiko partez, praktikatzailea izango dute Dolmenen Ibilbideko indusketek; soraluzetarra, gainera. Lur Salaberria (Soraluze, 2007) Historia ikasten ari da, eta, esplikatu duenez, Historiaurrea eta Arkeologia Sarrerako ikasgaietan sortu zaio Dolmenen Ibilbidea lantzeko aukera. "Aranzadik hogeitik gora aztarnategi ditu eta ikasleek, normalean, informazio asko behar izaten dute lanak egiteko; ondorioz, informazio asko dituzten indusketetan egiten dituzte praktikak: Irulegin, Amaiurren... Baina Dolmenen Ibilbidea lantzeko aukera ere bazegoen, eta nik nahiago nuen herrian egin". Salaberriak esan duenez, ikasgaien artean, indusketen urteetako garapena aztertu dute, eta horixe ikasiko du praktikekin.

Hildakoaren kamera

Ikusten da Kereixetako-Egia Iparra tumuluak bazuela hildakoak gordetzeko kamera, baina hura desagertuta edo suntsituta dagoela esan du Tapia arkeologoak, "harrobi bezala esplotatu delako edo altxor bila jendea zuloak eginez edo palankarekin ibili zelako..."

Terraza, kontzertuak, dardoak...
Ostiraletan pintxopotea
Gipuzkoa etorbidea 1

Elektrizitatea
Iturgintza
Igeltseritza
Pintura
EXGA S.L.
679 623 584
Soraluze

laibi²⁵ urte
Mendiola Industrialdea 13
Soraluze
Tel. 943 75 12 69
www.laibi.net

ODR
ATEAK ETA LEHIOKAK
ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
T. 662 234 609
Sagar Etxe Kalea 2 - 30960 SORALUZE
e-mail: odritehok@gmail.com

Eguenetik erabilgarri dago Ezozi auzoko eraberritutako jolasparkea

Gutziz eraldatu dute auzoko jolasparkea, eta baita haren ingurua ere

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Pendulu-jolasa, sortzaileen etxola, trikimak-jolasa eta sasiakazia-hamakak. Jolas berri horiek ditu Ezozi parkeak orain.

Parkea inguratzen, berriz, kare-harri etzanak, jarlekuak eta erein berria den belarra ipini dituzte, eremuko zuhaixka eta zuhaitz inguruak txukundu dituzte eta miranda-harrixka txertatu dute. Horrekin batera, detaile modura, neguan *Amazonia gara* ikuskizunean Porrotx eta Marimotots paila-zoek herriari oparitutako pagoa ere Ezozi parkean landatu dute.

Atzorako, eguena, parkea estreintzeko moduan laga zuen K1 Ekopaisaia SLL (Kimubat) enpresak. Aurrekontua 36.953,3 eurokoa izan da -BEZa barne-, eta lanak ekainaren hasieran hasi zituzten, bizpahiru astean bukatzeko aurreikuspenarekin.

Adibidez, enpresa horrek egin zituen, baita ere, San Andresko parkea eta baita Estaziño goiko parkea ere.

Umeen eta familien ekarpenak

Ezozi jolasparkeari dagokionez, Soralezko Udalak espli-



Ezozi auzoko parkean azken lanak egiten, herenegun, eguaztena. U.M.Z.

katutakoaren arabera, iaz herriko hainbat umerengandik eta familiarengandik San Andres auzoko parkea zaharberritzeko prozesuan jasotako hainbat proposamen kontuan hartu dira Ezozi parkearen

diseinua egiterakoan. Kontuan hartu dituzte Haur eta Nerabeen Kontseiluetan jasotako ekarpenak, eta baita parkea landa-eremuan kokatuta egotearen garrantzia ere.

Horrekin batera, zaharbertzea egiteko orduan, honako ezaugarri hauek indartzearen aldeko apustua egin dutela azaldu du Udalak: naturarekiko harremana, esperimantazioa eta sorkuntza, sozializazioa eta hausnarketa, mugimendu askea, erabilera aukera zabala eskaintzea eta segurtasuna bermatzea.

36.953,3

EURO

Kopuru horixe da (BEZ barne) parkea zaharberritzeko aurreikusitako aurrekontua.

Herriko bainutokiak, gazteen freskagarri

Maiatzean etorri ziren lehen beroaldiak, eta, ordurako, Etxaburuetako ur-txorrotak zein Sagar Errekako putzua txukundu eta erabilgarri laga zituen Udalak. Asko dira asteotan biak ala biak aprobeztatzen dihardutenak. Kontatutakoaren arabera, Sagar Errekan, ura "freskotxo" dator, inguru "osoa garbi" dago eta jendea zegoen argazkia atera zutenean, joan den barikuan. Ur-txorrotak, berriz, askotan daude umez beteta. 10:00etatik 21:00ak arteko ordutegia dute azken horiek.



BITTOR MURGUZUR

Soraluzetarren lanak, Guggenheimen



PLAENTXI ESKOLA



PLAENTXI ESKOLA

Astelehenean, *Artea ikasbide* ekimenaren baitako erakusketa inauguratu zuten Guggenheim museoko Hezkuntza Aretan. Hantxe izan ziren ekimenean parte hartu duten Plaentxi Eskolako LH3ko ikasleak ere. Umeek bertatik bertara ikusi zituzten eurek herriko eskolan landutako lanak Euskal Herriko museorik famatuenean zelan dauden ipinita. Irailaren 20ra arte izango da erakusketa ikusteko aukera, eta areto horretarako sarrera doan da.

Mimoz
Hezpaindegia
Esteñika
Solariuma
Gabiluz 6, Artea Tel.: 943 75 15 13 - 682 51 14 94

MABEL
HEZPAINDEGIA
Laser depilazioa
Keratina tratamendua
Solariuma
Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89

LAGUNAK
colchoneria textil hogar
Ezagutu udaberri-udara denboraldiko ehunak!
Ohazalak eta edredoiak
Nordikoentzako zorroak
Izarak
Toallak
Tapizatuak
Udako mantetan aukera zabala!
San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 74 44 57 - 685 75 69 78 - www.textillagunak.com

Uda giroan sartuta, ordutegiak egokitu egin dituzte dendari gehienek

Ekainean aldatu dituzte ordutegiak, eta hainbatek uztailean berriro aldatuko dituzte

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Umeek udako oporrak hartzeaz bat, aldatu egiten da herriko egunerokoa; batik bat, arratsaldeetan. Eta eguraldi onaren etorrerak handitu egiten du eragin hori. Oro har, merkatariek diote jende gutxiago ibiltzen dela dendetan; bereziki, asteburu bezperetan.

Hori dela eta, ordutegiak aldatu egin dituzte askok, arratsaldeetan geroago zabalduz edo zenbait arratsaldetan itxiz. Eta batzuek uztailean ordutegiak berriro egokitzeko asmoa iragarri dute.



Atzo, eguna, BizikaleFest udako azoka egin zuten Plaza Barrixan. U.M.Z.

Udako ordutegiak –uztailean egokitzapenak izango dira–

- **Kooperatiba:** astelehenetik barikura, 08:30-13:00 / 17:00-19:45 / Zapatuak, 08:30-13:00.
- **Amparo:** astelehenetik barikura, 08:00-13:00 / 17:00-20:00 / Zapatuak, 08:30-13:00.
- **Iñarra harategia:** astelehenetik zapatara, 08:00-13:00 / Martitzenak eta barikuak, 18:00-20:00.
- **Okelia:** astelehenak, 08:00-13:00 / martitzenetik barikura, 08:00-13:00 / 14:30- 19:30 / Zapatuak, 08:00-13:00.
- **Criado fruta-denda:** astelehenetik barikura, 09:00-13:00 / 17:00-20:00 / Zapatuak, 09:00-13:00.
- **Vidal fruta-denda:** astelehenetik barikura, 08:30-13:00 / 18:00-20:00 (bariku arrats. itxita) / Zapatuak, 08:30-13:00.
- **KLB:** astelehenetik barikura, 10:00-13:00 / 17:00-20:00 / Zapatuak: 10:00-13:00.
- **Triskel:** astelehenetik eguaztena, 09:30-13:00 / 18:00-20:00 / Eguen eta bariku, arratsaldeak itxita.
- **Burdindegia:** astelehenetik barikura, 10:00-12:45 / 16:30-19:45 / Zapatuak, 09:00-13:00.
- **Iratxo:** 07:00-13:00 / 17:00-20:30 / Zapatuak, 07:00-14:00 / 17:30-20:30 / Domekak eta jaiegunak: 07:00-14:00.
- **Mendizabal okindegia:** astelehenetik zapatara, 08:30-13:30.

VII. Errugbi Eguna, arrakastatsua



U.M.Z.

Joan den zapatuan, Ezoziko zelaia bete egin zuten Arabatik, Bizkaitik zein Gipuzkoatik bertaratutako 160-170 bat errugbilarik eta haien entrenatzaileek, gurasoek eta lagunek. Errugbilari gazteek gogotik jokatu zuten elkarren kontra, eta elkarrengandik ikasi. Hain zuzen ere, topaketa borobiltzeko, guztiendako izan ziren dominak, opariak eta otordu ezin gozoagoa.

Udate Gaueko sua 22:30ean piztuko dute, Plaza Barrixan

Martitzenean, ekainaren 23an, Udate Gaueko ospakizuna egingo dute Plaza Barrixan. Sua piztu aurretik, 22:30ean, txistulariak, txalapartariak, bertsolariak eta abesbatzako kideak izango dira plazan, nork bere aletxoak jartzen. Gero, sua piztu, eta dantzan egingo dute; hitz magikoak esateko tarteak ere izango da, edabe magikoarekin freskatzekoa ere bai, eta, azkenik, suaren gainetik salto eginez borobilduko dute erritua.

Hori guztia egin baino lehen, 19:00etatik 22:00ak arte, ikasbidaia ikasleek eta gurasoek jan-edana erosteko aukera emango dute.

"Erritmoak, talde-lana eta norberaren garrantzia landuko ditugu"

NEREA MENDIA MUSIKARIA

16 urtetik gorako edozein emakumek parte har dezake

U.M.Z. SORALUZE

Bihar eta etzi, zapatua eta domeka, aurtengo batukada feministaren tailerra hasiko da. Herri Antzokian, 10:30etik 13:30era arteko saio bana egingo dute. Soraluzeko Emakumeon* Ahalduz Eskolako udaberri eta udako egitarauaren baitan antolatutako ekintza da; iaz egin zuten lehen aldiz. Tailerrak segida izango du uztailean 11-12ko asteburuan. Tailerra egin ondoren, uztailean 19an, domeka, erakustaldia egingo dute.

Zelako tailerra izango da? Erritmo jakin batzuk landuko dituzue?

Bai. Tailerrean Brasilgo erritmoak landuko ditugu, batukada formatukoak, baina baita rumba eta funk erritmoak ere. Horretaz gain, talde-lana entrenatuko dugu, instrumentu txikia nahiz handia izan norberaren garrantzia ulertzea eta sentitzea ere landuko dugu, eta hori gure egunerokotasunean zelan barneratu ere landuko dugu.

Perkusio tresnaren bat eraman behar dute partaideek? Badago partaidetza mugarik?

Instrumentu guztiak nik ekarriko ditut, Bartzelonako Tambolas Percussio Femenina emakumezkoen batukadatik. Ikastaroan, berriz, lekua dago 25 bat emakumerentzat. Parte hartzeko 16 urtetik gorakoa izan behar da, baina hortik gora ez dago mugarik. Partaideek ekarri behar dutena gogoia da!

Parte hartzeko ezaugarriren bat bete behar da?

Ur-parkea, bazkaria eta apar-festa, ikasturtea agurtzeko

Bihar, zapatua, goizetik iluntzera arte –11:00-13:00 / 16:00-19:00–, ur-parkea izango da Frontoi Zaharrean, Soraluzeko umeen eta gazteen ikasturte amaiera festa ospatzeko. Bertan bazkaltzeko proposamena egin dute, jatekoa nork bere etxetik eramanda. 18:30ean, berriz, apar festa berezia egingo dute.



lazko kideak, Santa Anan. JORGE DE CASTRO

Musikalki ez. Bestela, pazientzia eta gogoia, ez da besterik behar.

Iaz parte hartu zutenek ere parte har dezakete?

Bai, noski! Errepikatze gogoz badaude, seinale ona da, gainera! Eta horrek prozesua ere errazten du, normalean.

Besterik nahi baduzu esan...

Nahiko nieke eskerrak eman joan den urteko partaide guztiei; izan ere, aurtengo tailerra egitea posible izango da eurek egindako ebaluazioari esker. Horrez gain, oso oso polita izan zen osatu zen taldea, eta esperientzia benetan aberasgarria izan zen niretzat ere, eurek erakutsi zidaten guztia-rengatik.

Eta, nola ez, Maite Quintanillari eta Esther Cruzei eskerrak asko, berriz ere nitaz fidatzearen.



U.M.Z.

"Marraztu ditut Soralezeko eliza, plaza, udaletxea... harrizko eraikinak"

JOSEAN SAN TORCUATO ARTISTA

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Soraluzeko erdigune historikoa, zubia eta inguruko paisaia, futbol taldeen ikurrak eta bestelako artelanak ikusgai daude Asigor tabernan ekaina hasieratik dagoen erakusketan. Josean San Torcuato Imazek (Bergara, 1964) marraztu ditu, plumulaz zein grabatu modura, eta ekaina bukatu bitartean izango dira ikusgai.

Soraluzeko zer margotu duzu? Zergatik?

Plumulaz marrazten dut, batik bat, eta, horrekin, ondoen geratzen diren motiboak harrizko eraikinak dira. Zenbat eta harri eta izkina gehiago izan, orduan eta joko handiagoa ematen du. Horregatik marraztu ditut Soralezeko erdigunea, eliza, kanpandorra, udaletxea, plaza, ibai ondoko etxeak, Ezo-ziko ermita...

Izatez, baina, Bergarakoa zara...

Bai. Soralezeko lekuak bezala, inguruko beste herri eta leku batzuetako eraikinak eta paisaiak ditut marraztuta, baina Asigor tabernan Soralezekoak daude ikusgai. Lekueta joaten naiz, argazkia atera, eta gero, etxean marrazten ditut grabatuak zein



Josean San Torcuato, grabatu batekin.

plumulaz eginikoak. Lan mordoa ditut eginda, eta erakustea erabaki dut.

Hortaz, Soraluzen ez ezik, beste nonbait ere ipiniko duzu erakusketak?

Bai. Zumarragan, Arrasaten, Aretxabaletan, Oñatin, Bergaran eta Elgetan, besteak beste.

Herri guztietan erakusketak tabernetan izango dira?

Bai. Nahi dut lan bakoitza erakutsi berezko udalerrian, baina lanak ez dira erakusketak areto bat betetzeko besteak, tamaina txikiko lanak direlako. Ho-

rregatik, erakusketak ere hobe da formatu txikian egin, eta tabernetan egingo ditut. Grabatuz eta plumulaz egindako lanez aparte, olioaz eta akuarela egingo dira lan batzuk baditut, baina gehien-gehienak dira grabatuak eta plumulaz egindakoak.

Orri-markatzaileak ere badaude ikusgai...

Bai, inguruko futbol taldeenak; Realarena eta Athleticena, adibidez. Eta Soralezekoa ere bai. **Soraluzen erakusten duzun lehen aldia da?**

Bigarrena. Orain dela 15-20 bat urte Soralezeko Batzokian ipini nuen erakusketak, eta ia lan guztiak saldu nituen. Orain ere eros daitezke Asigorren daudenak. Ipinita dituzte prezioak.

Zaletasunez marrazten duzu, ezta?

Bai, nire kabuz. Ez dut arte ikasketarik eginda. Gustuko nuelako hasi nintzen, plumulaz, orain dela 25 bat urte. Gero, grabatuak egiteko ikastaroa egin nuen. Grabatugile oso onak zeuden orduan: Arteaga, Otaño... Orain ere segitzen dut marrazkiak egiten, egunero egiten dut zerbait; izan ere, lagaz gero, berriro hastea asko kostatzen da.

Batzar Nagusiak "oso kritiko" azaldu ziren Basalgoko proiektuarekiko

Zentralaren kontrako Soralezeko taldeak mendi martxa egingo du, Seo Birdlife ornitologia elkarteko aditu batekin

U.M.Z. SORALUZE

Haizea kontra jarri zaio Basalgon –Topinburu, Ilordo...– zentral eolikoa eraikitze proiektuari. Geroago eta gehiago dira proiektu horrekiko kritikotasuna zein kontrakotasuna plazaratzen duten ahotsak. Azkenak, Batzar Nagusietako alderdi politikoenak. Izan ere, alderdi politikoko guztiek aho batez onartu zuten Eibarko Mendiak Bizirik taldeak Basalgoko zentralarekin lotutako ebazpen-proposamena.

Alegazioak, ur-zikloa...

Ebazpen-proposamenean, besteak beste, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio udalek, herritarrek eta erakundeek Basalgon proiektuaren aurka aurkeztutako "alegazioak aztertze eta modu arrazoiatuz erantzuteko", neurtuz proiektu horrek "ingurumenean, gizartean, paisaian, ekonomian, ondarean eta inguruko biodibertsitatean izan ditzakeen inpaktua". Halaber, eskumenaren duten erakundeek eskatzen zaie proiektuak eragindako eremuan "ur-zikloa zaintzeko eta babesteko, oinarritzeko ondasun hori bertan bizi diren komunitatei". Halaber, Jaurlaritzari

eskatzen zaio "Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala izapidetzen amaitzeko" eta "behin betiko onesteko"; *gaitasun baxutzat* joko luke horrek Basalgoko eremua. Foru Aldundiari eskatzen zaio jarraitzeko nekazaritza eta baso-lurzorua babesa bultzatzen, eta Aldundiari eta Jaurlaritzari eskatzen zaie herritarrei irekitako parte-hartze soziala defendatzeko.

Oro har, Eibarko Mendiak Bizirik taldeak modu positiboan baloratu du Basalgon proiektuarekin lotuta ordezkaritza politikokoengandik orain arte jasotako erantzuna.

Mendi martxa irailean

Bestalde, proiektu horren kontrako Soralezeko taldeak iragarri du herriko jaietan proiektuari buruzko informazioa partituko duela herritarren eta bisitarien artean. Eta nabarmendu du Soraluzetik Elgoibarera joango den mendi martxa antolatuko dutela iraileko. Mendi martxa Seo Birdlife Espainiako Ornitologia Elkarteko aditu baten azalpenekin aberastu nahi dute.

Dantzan, eguzkia ezkutatu zen arte



LOREA DE CASTRO

Joan den larunbatean, eguraldi ederra lagun, dozenaka dantzazale batu ziren Ezo-ziko plazan, 17. Erromerixa Eguna ospatzeko. Arrabitariek, trikitilariek, txistulariek, gaiteroek eta Eingo taldeko musikariek girotu zuten eguna, eta dantza izan zen protagonista nagusia, eguerdian hasi eta iluntzean eguzkia ezkutatu zenera arte.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, "aurten gazte kopuru handia joan da ospakizunera, eta hori Soraluzen dantza-zaletasuna biziberritzen ari den seinale da". Azkenik, eskerrak eman dizkiete modu batera edo bestera eguna antolatzen lagundu duten herritar eta erakunde guztiei.

Musikari gazteen urteko uzta



U.M.Z.

Frontoia entzulez beteta zutela, ikasturte amaierako kontzertua eman zuten 50 musikaririk baino gehiagok herenegun, eguaztena. Taula gainean izan ziren Soralezeko Musika Eskolatik eratorritako musikari gazte zein beteranor osatutako taldeak: Banda Gaztea, Fanfarrea, Konbo Itxaropena, Deabru Gorriak, Leia... Txalo zaparradak eskuratu zituzten eskainitako doinuen truke.

Orainsu aurkeztu duten *Luzaroan Luzaro* bideokliparen irudi bat. LUZARO

Debako erraldoiek ere parte hartu dute ikus-entzunezkoan. LUZARO

Ikasturte bukaerako festa ospatuko du bihar, larunbata, Luzaro ikastetxeak

Lehen aldiz, ikasturteari amaiera borobila emateko egun osoko jai antolatu du Debako Luzaro ikastetxeak, Zubi Guraso Elkartearekin, Kolore Anitzekin eta Udalarekin lankidetzan. Herri osora hedatuko da eskola komunitatearen festa

Izaro Aulestiarte

Ikasturteari ezohiko amaiera emango dio aurten Luzaro ikastetxeak, egun osoko festa iragarri baitu biharko, ekainak 20. Jolasak, musika eta herri bazkaria izango dira lehen aldiz antolatu duten ospakizunaren osagai nagusiak.

Ikastetxeko ordezkariak azaldu dutenez, herri osora zabaltzeko nahi dute Zubi Guraso Elkartearekin, Kolore Anitzekin eta Udalarekin elkarlanean prestatutako festa, ikasleen, familien eta herritarren arteko loturak estutze aldera.

Argitu dute, hortaz, ez dela aisialdi eskaintza soil izango, hortik harago baitoa erronka: "Komunitatea indartzeko eta elkarbizitza sustatzeko asmoz antolatu dugu festa. Alegia, eskola komunitatea kalera ateratzea da helburu nagusia, kulturaren, musikaren eta jolasaren bidez elkarbizitza osasuntsua sustatzeko". Horregatik, "denentzako gune seguru eta atsegina bermatzeko", hitzordura batuko direnei "jai arduratsu eta osasuntsu baten aldeko konpromisoa" hartzeko eskatu diete.

Jai eredu parte hartzaile baten aldeko apustua eginez, adin guztietako jendeari zuzendutako egitaraua ondu dutela nabarmendu dute antolatzaileek, "belaunaldien arteko topaketa sustatu nahian".

10:30ean hasiko da jaialdia, haurrentzako prestatutako jolas-guneetan; Kolore Anitzek bost txoko atonduko ditu guztira, herriko hainbat gunetan.

12:30etik 13:30era bitartean, berriz, Debako Banda Gazteak kontzertua emango du elizan, Erriberriko musikari gazteekin

batera. Eta, jarraian, ikasleek gidatutako trikiti eta pandero kalejira egingo dute, Foruen plazatik abiatuta. Jai giroak Aldats pilotalekuan izango du jarraipena, bertan izango baita herri bazkaria, 14:30ean. Ondoren, 16:30ean hasita, Kolore Anitzek musikaz girotuko du festaren amaiera, Foruen plazan.

"Lehen harria"

Jaialdiaren lehen edizioa izango da aurtengoa, baina ez da, zurrerik, azkena izango. "Antolatzailen asmoa da festa urtero-

ko hitzordu finko bihurtzea. Eskolaren eta herriaren arteko zubiak eraikitzen jarraitzeko lehen harria izatea nahi dugu, datozen urteetan ere egutegian gorritz markatutako eguna izan dadin", gaineratu dute.

"Komunitatea indartzeko eta elkarbizitza sustatzeko asmoz antolatu dugu festa"

Euskal dantzariak pozik daude jaialdia Foruen plazan egin izanarekin

I.A.

Gure Kai Euskal Dantzari Taldeko kideek eta Deba Musikal udal musika eta dantza eskolako dantzariak joan den larunbatean, hilak 13, ospatu zuten dantza eskolatan egindako lana erakusteko helburuarekin urtero antolatzen duten jaialdia. Kokapena izan da aurtengo berritasuna, emanaldia Foruen

plazan izan baitzen, horretarako propio jarritako eszenatokiaren gainean.

Emaitzarekin pozarren daude dantzariak: "Antolatu dugun jaialdiaren estiloa goraiatu du herriko jendeak; izan ere, finean, horrek ere eman dio euskal dantzari bere tokia herrian. Dantzari ikusgarritasuna emateko toki dotorea da Foruen plaza".



Bi ezpata-dantzari, jaialdian. GURE KAI



Haur, gazte nahiz heldu, 70 bat lagunek parte hartu zuten erakustaldian. GURE KAI



Arbil Elkarte Sozialeko zuzendaritza-batzordeko kideak, elkartearen egoitza aurrean. JOXERRA LARRAÑAGA

Nerea Bedialauneta Alkorta

Udako atsedenaldiaren atarian, Arbil Elkarte Sozialeko zuzendaritza-batzordeak azken hila-beteetako jardunari buruzko balorazio positiboa egin du. Haien arabera, elkarreak antolatutako ekimenak "aisialdiaz harago" doaz; izan ere, adinekoen arteko harremanak sendotzeko, bakardadeari aurre egiteko eta komunitatea indartzeko tresna eraginkor bihurtu dira.

Azken datuek erakusten dutenez, Arbilek gero eta presentzia handiagoa du herriko adinekoen artean, eta dagoeneko erreferentziazko topagune gisa finkatzen ari da. Gaur-gaurkoz, sasoi betean dago egitasmoa: 850 bazkideetik gora ditu.

Duela hiru urte hartu zuen gidaritza egungo talde eragileak, eta, azpimarratu dutenez, harezkerok kide berri asko hurbildu dira elkartera; bereziki, jubilatutako berriak. "Ekintzetan eta tailerretan parte hartzeko bazkide izatea eskatzen diegu, eta, gure ustez, horregatik hazi da hainbeste bazkide kopurua. Konturatu garenez, gainera, datorren kidea, bereziki, jubilatutako berri den herritarra da; duela gutxi arte, hori ez zen oso ohikoa", adierazi dute.

Hitzaldiak eta tailerrak

Elkartearen gidaritza hartu ondoko, hitzaldien eta tailerren eskaintza indartzea izan zen zuzendaritza-batzorde berriak lehenetsi zuen lan-ildoetako bat.

Sasoi betean eta adinekoen topagune bihurtuta amaitu du ikasturtea Arbilek

Duela hiru urte zuzendaritza-batzorde berriak abiatutako ekimenei esker, Arbil Elkarte Sozialak arrakastaz beteriko ikasturtea borobildu du. 850 bazkide baino gehiagorekin, hazkunde eta sendotze fasean murgilduta dago egitasmoa

Horrela, hileko lehen ostegunetan askotariko gaiei buruzko jendaurreko saioak eskaintzen dituzte Kultur Elkartean, eta aretoa, gehienetan, leporaino betetzen da. Teknologia, osasuna, ongizatea, kultura, ekonomia eta aktualitatea jorratzen dituzte; betiere, maila handiko hizlarien eskutik.

Hainbat erakunderekin lankidetzan, gainera, bestelako jarduerak osagarriak ere antolatu dituzte. Ertzaintzarekin batera, etxebizitzaren segurtasunari eta telefono bidezko iruzurrei bu-

ruzko saioak bideratu dituzte; eta herentzietan zein ondorengotza-itune buruzko solasaldia ere prestatu zuten, Zumaiako notarioaren eta herriko abokatu baten parte-hartzearekin. Osakidetzarekin eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean, bestalde, osasunari buruzko zenbait ikastaro ere gauzatu dituzte.

Teknologia

Belaunaldien arteko zubiak erakitzea ere lehentasun bihurtu da Arbilekoentzat. Mendata ikastetxeko DBHko ikasleekin egindako ekimenetan, gazteek teknologiari eta mugikorren erabilerari buruzko ezagutzak partekatu dituzte adinekoekin, eta horrek arrakasta handia izan duela nabarmendu dute.

Halaber, elkarreak hainbat ikastaro koordinatu ditu KZgunearekin batera, kideen trebe-

tasun digital eta teknologikoa indartzeko asmoz.

Aisialdi arloan ere eskaintza zabala du elkarreak. Hileko azken ostegunetan antolatzen dituzten txangoek ere "izugarriko arrakasta" dute, eta, autobusak azkar betetzen direnez, maiz itxarote-zerrendak ere ireki behar izaten dituzte. Ongizate fisikoa sustatzeko asmoz, bestalde, hileko bigarren ostegunetan oinezko irteerak egiten dituzte inguruko parajeetara, eta horiek ere indarra hartzen ari direla erantsi dute.

Udalaren eta hainbat erakunderen dirulaguntzak funtsezkoak direla nabarmendu dute

Arbileko kideei ez zaie bidaia-tzeko gogorik falta. Duela hila-bete batzuk, astebeteko egonaldia egin zuten Marokon eta autobus oso bat betetzea lortu zuten. Hurrengo helmuga Toscana izango da.

Kirol eta dantza jarduerak ere eskaintzen dituzte, hala nola dantza latinoetako saioak –bachata, saltsa eta lineako dantzak– Musika Eskolan, bai eta spinninga, aerobika eta indarra zein oreka lantzeko saio bereziak ere kiroldegian. Sormenak ere leku berezia du eskaintzan. Joste taldeak ostiralero egiten dituzte saioak, Maria Jesus Mancisidoren gidaritzapean, eta puntu-tailerretan bitan elkartzen da, Mari Naranjorekin. "Giro atsegina eta parte-hartzailea" izaten dela azpimarratu dute. Horiez gain, beste hainbat ospakizun berezi ere antolatzen dituzte: Inauterietako txokolate-jana, San Tomas Eguneako txistor-jana, Gabonetako zozketak eta 80 urtetik gorako kideentzat herri bazkaria.

Balorazioa egiteko orduan, asteburuetan elkartearen egoitzan sortzen den mugimendua ere ezin dela aipatu gabe utzi esan dute. Igandero, 17:30etik 20:30era antolatzen duten kinak –bingoaren antzeko jokoak– adin guztietako pertsonak elkartzen jarraitzen du; bereziki, adinekoak. Bertarantz direnentzat asteroko hitzordu finkoa dela esan dute, "etxetik irten, lagunekin elkartu eta arratsalde atsegina pasatzeko aitzakia ezin hobea".

Babesletza

Gogorarazi dute balorazio positiboa horren atzean hainbat erakunderen eta babesleren laguntza dagoela. Jarduera askok kostu handia dutenez, kanpotik datozen ekarpenak –Kutxa Fundazioa, Debako Udala, Kutxabank, Caixabank, Danobat, Goimek, Laboral Kutxa eta Kide– ezinbestekoak direla azaldu dute.

Ildo horretan, Kutxa Fundazioaren laguntzari esker, telebista handi bat jarri dute areto nagusian, hitzaldiak eta tailerrak egiten direnean proiektore gisa ere erabiltzeko, eta elkarreak berak hamar ordenagailu eramangarri erosi ditu, ekipamendurik ez duten kideen eskura jartzeko. Udalak emandako laguntzari esker, bestalde, urteko jai eta irteera garrantzitsuenak finantzatu ahal izan dituzte.

Debako Kultur Elkarteak antolatutako Ostolaza Sariak badituzte irabazleak

Epaimahaiak hala erabakita, aurten bost herritarri eta talderi egin diete aitortza

Izaro Aulestiarte

Joan den larunbatean, hilaren 13an, banatu zituzten aurtengo Ostolaza Sariak, Kultur Elkarteak antolatutako Bazkidearen Eguneko ekitaldien baitan. Willy Berasaluzek irabazi du *Sortzailak Saria*, eskulturaren, collagearen eta argazkilaritzaren egindako ibilbideagatik; proiektu kolektiboen edo taldeen lana aitortzeko *Dinamikak Saria* Aitzuri Abesbatzak eskuratu du; Zuhazta Euskara Elkarteak eraman du herrigintzari eta kulturari egindako ekarpena aitortzeko helburua duen *Ezinbestekoak Saria*; eta kultura-arloan egindako lana eta sortzailearen etorkizuneko proiektioa nabarmentzeko xedez ematen duten *Hazia Saria* Nerea Loiola idazle debarrarentzat izan da.

Ezustean, baina, aurten beste sari bat ere gehitu du epaimahaiak, lehen aldiz: Iruñeko Skabidean taldeari *Sari berezia* eman dio, besteak beste, *Herri kuttuna* diskoan "Jose Manuel Ostolazari eta Debako herriari omenaldia" egiten dien *Ostolaza* kanta plazaratu izana eskertzeko.

Sarituak ez ezik, beste hamarnaka herritar ere joan ziren



Aurtengo sarituak, ekitaldiaren amaieran ateratako talde-argazkian. ALEX TURRILLAS



Jendetza bildu zen Skabidean taldeak larunbatean eman zuen kontzertuan. A.T.

sari banaketara. Aurreko bi urteetan egin bezalaxe, Jose Manuel Ostolazaren bizitzaren errebaso txiki bat eginez hasi zen hari omen egitera datozen kultur sariaren ekitaldia; Kultur Elkarteak zuzendaritzako kideek hartu zuten hitza bertaratutakoan aurrean. Eta, ondoren, ohorezko agurra dantzatu zioten, baita lore eskaintza egin ere. Gure Kai Euskal Dantzari Taldeak, Josu Salegi eta Miguel Laguna musikariek, Aitzuri Abesbatzak, Skabidean taldeak, Iturrian koruak eta Rafael Bravo idazleak ere parte hartu zuten hitzorduan.

Bazkidearen Eguna, giro onean
Ostolaza Sariak banatzeko ekitaldia larunbateko festa giroaren hasiera baino ez zen izan, iluntzera arte iraun baitzuen Kultur Elkarteak bazkideen omenez antolatutako egitarauak.

Zehaztu dutenez, 70 bat bazkidek parte hartu zuten Arrano Elkartearen egindako herri bazkarian, eta *NEU: Bingo musika-tu jostari bihurria*-k girotu zuen bazkalostea. Iluntzean, berriz, Kultur Elkarteak plazaratua go-raino bete zen, Skabidean taldearen kontzertuan.

Antolatzaileak gustura daude Bazkidearen Egunari egin zaion harrerarekin. Esker oneko hitzak izan dituzte ekitaldietan parte hartu zuten herritarrentzat, baita egitarau osoa aurrera eramaten lanean aritu ziren boluntario guztientzat ere.

Auzotarren egunaz jai giroan gozatuko dute, bihar, Mardarin

I.A. ITZIAR

Urtero legez, ekaineko hirugarren larunbatearekin batera ospatuko dute Mardaritarren Eguna auzotarrek. Goizean hasi eta iluntzera arte iraungo duen egitaraua ondu dute biharko, hilak 20, eta festara batzeko gonbidapena egin diete herritarrei.

Aurreko urteetako antzeko ospakizuna antolatu dute. "Auzotarrak gustura daude orain arte egin ditugun ekintzekin, eta, horregatik, errepikatzea erabaki dugu; formatua mantenduko dugu", azaldu dute antolatzaileek. Nolanahi ere, bada berrikuntzarik, aurten ez baita dantza emanaldirik izango.

Ermita zaharra, elkargune

Egitaraua 10:30ean hasiko da, ermita zaharrera egingo duten txangoarekin –Santuarango aparkalekutik abiatuko dira–. Behin bertara iritsita, hamaketakoa eta sagardo-dastaketa izango dira; auzoko lauzpabost baserriak sagardoa eta sagar-zukua eskainiko dute. 14:30ean, berriz, auzo-bazkaria egingo dute, Santuaran jatetxean, trikitilariak alaituta, eta 17:00etan, haurrentzako merienda eta mahai-jokoak izango dira.

Ohitura zaharrak berpiztuz, suaren bueltan ospatuko dute udaren hasiera

I.A. DEBA-ITZIAR

Festa giroan udari ongietorria egingo diote datorren astean Euskal Herriko txoko askotan; tartean, Deban eta Itziarren. Ohitura zaharrak berpiztu, eta 23an, San Joan bezperan, sua pizteko prest daude herritarrek.

Deban, Foruen plazan izango da ekitaldi nagusia. Kalez Kale txistulariek kalejira egingo dute herrigunean barrena, 21:00etan hasita, eta 22:00etan hasiko da plazako hitzordua. Ohiturari eutsiz, sua izango da festaren ardatza, baina musika eta dantza ere gehituko dizkiote haren bueltan egingo duten ikuskizunari; sua pizten duten bitartean, txistulariek *San Joan zortzikoa*

joko dute, eta, ondoren, Gure Kai dantza taldeko kideek ere parte hartuko dute ekitaldian. Ikuskizuna biribiltzeko, Ostolaza eta Narbaiza trikitilarien erromeria izango da, plazan bertan.

Itziarren, berriz, 22:00etan piztuko dute sua, urmaeleko partzelan, eta Lasturren ere ordu berean hasiko da festa, San Nikolas plazan.

San Joan Eguna

Biharamunean ere, San Joan Egunean, izango da ospakizunik. Deban San Joan zuhaitza jarriko dute Foruen plazan. Santa Katalinan, aldiz, meza berezia egingo dute baselizan, 11:30ean.



Iazko ikuskizuna, Foruen plazan. GURE KAI

Ekainaren 28an, bestalde, San Pedro bezpera ospatuko dute Deban. Ohi bezala, 21:00etan irtengo dira txistulariak kalejira eta 22:00etan izango da zahagi-erretzeak eta dantzek osatutako ikuskizuna, Plaza Zaharrean.

Auzo Udalak prest dauka datorren ikasturterako ikastaro eskaintza

I.A. ITZIAR

Auzo Udalak datorren ikasturtean Itziarren eskainiko dituzten ikastaroen berri eman du. Azaldu duenez, iazko eskaintza berbera izango da, baina berrikuntzarik ere izango da tartean. Besteak beste, 7 urtetik gorakoei zuzendutako ingeles ikastaroa antolatu dute berriz ere; eskolak astelehenetik ostiralera izango dira, Geroa Galarragaren eskutik, hainbat adin eta mailatan banatuta. Orduetegiak oraindik ere zehaztu gabe dauden arren, ikastaroa irailean hasi eta ekainean bukatuko dela iragarri dute.

Osterantzean, lehendik martxan dauden ikastaroak mantenduko dituzte: euskal dantzak,

trikitia eta panderoa, yoga, eskulanak eta zaharberritzea, joskintza eta puntua... Iaz bezalaxe, gainera, Maddi Astigarraigak gidatutako sormen tailerra ere izango da. Salbuespenak salbuespen, ikastaro gehienak urrian hasi eta ekainean amaituko dira.

Izen-ematea, ostegunera arte

Ekainaren 25ean itxiko dute izen-ematea; Internet bidez, labur.eus/ikastaroetaikoizenemateaitziarren20262027 estekan, edo aurrez aurre egin daiteke, Harrera Bulegoan. Informazio gehiagorako, idatzi ikastaroak@itziar.eus helbide elektronikora edo deitu 943 19 92 55 telefonora.

Amagoia Arrieta zilarrezko dominarekin bueltatu da Espainiako Boccia Txapelketatik

Deban bizi den kirolari ermuarrak azken bi urteotako emaitza bera errepikatu du

Nerea Bedialauneta Alkorta DEBA Joan den asteburuan, Castellon (Herrialde Katalanak) jokaturako Espainiako Boccia Txapelketan lehiatu zen Amagoia Arrieta. Lau aldiz Espainiako txapelkun izandakoak maila ona erakutsi zuen BC1 kategorian, bakarkako modalitatean, eta, finala galdu ondoren, zilarrezko dominarekin bueltatu zen Debara.

B multzoko bigarren postuan sailkatu ondoren, final-laurdinetan 4-3 irabazi zion Joaquin Villenari, eta finalerdietan 5-1 nagusitu zen Francisco Manuel Castilloren aurka. Final handian, Juan Manuel Montilla *El Langui* aktore eta rap kantari ezagunaren aurka gogor saiatu bazen ere, 0-8 galdu zuen.

Lehia podiumeko lehen koskan amaitu ez bazuen ere, pozik dago

emaitzarekin. "Sentsazioei dagokienez ez nintzen eroso ibili; batez ere, beroagatik eta eskue-tako hezetasunagatik. Horrek, egia esan, ez zidan nire jokoa garatzen utzi", adierazi du. Hala ere, beste behin ere gorengo

postuetan izatearen garrantzia azpimarratu du. "Zilarrezko domina bat irabaztea oso pozgarria da niretzat; entrenamendu ordu askoren emaitza da honako hau. Podiumera igotzea, gainera, beti atsegina da kirolariontzat".



Amagoia Arrieta, erdian, Kemen klubeko kideekin batera. KEMEN

Giro onean agurtu dute denboraldia

Aurreko larunbatean, ekainaren 13an, denboraldia agurtzeko herri bazkaria egin zuten Amakak-Bateko kideek. Guztira, 375 bat jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritzako kide, laguntzaile, bazkide eta zale elkartu ziren denboraldiaren amaiera ospatzeko, Aldats pilotalekuan giro onean egin zuten paella janean eta ondorengo sari-banaketan.



ESTI BERSTAIN

Ongizatearen Plaza egitasmoa egingo dute Deban hilaren 25ean eta 26an

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez, bi egunez ongizate integralaren inguruko jarduerak hartuko dute Foruen plaza

I.A. Gipuzkoako Foru Aldundiak, tokiko hainbat eragilerek eta Udalarekin elkarlanean, Ongizatearen Plaza ekimen ibiltaria ekarriko du Debara datorren astean, ekainaren 25ean eta 26an. Ongizate integrala erdigunean jarrita, eta "pertsona orok ondo egoteko eta ongi sentitzeko funtsezkoak diren gakoak eta bizi-penak ardatz hartuta", askotariko solasaldi eta jarduerak parte hartzailez osatutako egitaraua iragarri dute.

Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiak azpimarratu duenez, "ongizate integralaren inguruan hitz egiteko eta elkarri entzuteko gune irekia da" Ongizatearen Plaza, eta Deban egingo diren ekimenetan parte hartzera animatu ditu herritarrek. Izan ere, gogorarazi duenez, herritarrei eragiten dieten "errea-

litate eta arazo sozial berriak areagotzen" ari dira, eta gai horiek mahai gainean jarriko dituzte jardunaldietan.

"Ongi egoteaz gain, gipuzkoarrak ongi sentitzea nahi dugu. Gipuzkoar guztien ongizate integrala bultzatu nahi dugu; hori da Aldundiaren lehentasun nagusia. Ongizatearen Plazaren bitartez, gai horien guztien inguruko elkarriketa eta partaidetza sustatu nahi dugu", gaineratu du Mendozak.

Zortzi ekintza, hamaika gai

Guztira, herritar guztiei zuzendutako zortzi hitzordu izango dira aukeran Foruen plazan. Bertan, askotariko gaiak izango dituzte hizpide, hala nola zahartzarora, hizkuntza, teknologia digitalen erabilera, elikadura osasuntsua eta nahi ez den barkadadea.

Egitaraua

OSTEGUNA, 25

- 10:00-11:30 Osasuntsu zahartu
- 11:30-13:00 Autonomia eta prebentzioa zahartzaroran
- 17:00-18:00 Hizkuntza, nortasuna eta ongizatea. Deban nola bizi dugu euskara?
- 18:00-19:00 Pantailen aroan, erabilera osasuntsua

OSTIRALA, 26

- 10:00-11:30 Elikadura jasagarria eta osasuntsua
 - 11:30-13:00 Nahi ez den barkadadea
 - 17:30-18:30 Barreterapia tailerra
 - 18:30-19:30 Amaiera alaia eta txakolin dastaketa
- Oharra:** Foruen plazan egingo dira saio guztiak.

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

Kalejaria 2/11 - 2000103

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernin Calbeton 39- 3 ezk. Eibar
94320 72 17 | 660 42 28 08
amaia@esnaolaodontologia.com

ARENA BAR

Batzoki
BAR

Asteburuetako menua,
plater konbinatuak...

Plaza Zaharra (Soralezu) Erreserbak: 638 91 15 97

DEBA
Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

ITXAS GAI
ITXAS GAI

Nafarroa Plaza - 943 19 25 76

ENGLISH SQUARE
SCHOOL OF ENGLISH

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206 • info@english-square.net

Ikastaro trinkoak ekainean eta uztailean
DBH eta batxilergoa
First eta Advanced tituluak

ME ENDANETA
muebles altzariek

Sukalde eta etxe altzarrien erakusketa izugarria 3000m²

Itziaroko gaina
Tel.: 943 19 91 00
Fax.: 943 19 91 91
ITZIAR-DEBA

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAINTZA

Eibar Ile-apaindegi baterako langilea behar da. Esperientzia eta ikasteko gogoia duen pertsona behar du. Interesatuok, bidali curriculum: peluqueriaeider3004@gmail.com.

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Astelehenerik larunbatera. Urteetako esperientzia daukat. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. 631 52 13 51

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka zein asteburuetan. Gauzez lan egiteko ere prest nago, etxean edo ospitalean. 631 42 56 86

Elgoibar. Adinekoak zainduko nituzke, astean zein asteburuetan. Ospitalean gauak pasatzeko prest nago. Beharrezkoak diren tituluak eta esperientzia ditut. 632 29 26 62

Elgoibar. Lan bila nabil. Zerbitzuetan esperientzia handia. Bost hizkuntza menperatzen ditut. Berehala hasteko prest. Azken urteetan adinekoak zaintzen ibilia naiz. 634 19 62 36

Elgoibar. Lan bila nabil. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen. Etxeko, bulego eta tabernetako garbiketa lanetan jardungo nuke, baita leihoak garbitzen ere. Harategiko lanetan esperientzia dut. 632 70 89 54

SALEROSKETAK

EROSI

Eibar. Helduentzako bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. 637 58 78 11

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN HARTU

Elgoibar. Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. Epe luzerako. 602 30 40 08

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06

Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!



ELGOIBAR
Lea

Zorionak, Lea! Bihar, 11 urte! Muxu handi bat, etxekoen eta, bereziki, Markelen eta Maialenen partez.



SORALUZE
Dina

Ongi etorri gure artera! Pozez zorratzen gaude! Maite zaitugu.



SORALUZE
Laia

Ekainaren 23an, 3 urte, sorgintxo! Zorionak! Asko maite zaitugu. Amamaren eta Oihanen partez.



SORALUZE
Miren

Zorionak, Miren! Plazera da astero zure eskoletan dantza egitea. Plaza dantzako ikasleak.



DEBA
Jon

Zorionak, Jon, zure egunean, eta mila esker gure bizitza hain berezi egiteagatik. Segi horrelako jator.




ELGOIBAR
Markel

Zorionak, Markel. Ondo-ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat, Elgoibartik eta Errioxatik. Txokolate-jana noiz da? Gu prest joateko. Eta izeba Maria Luisa, zuri ere zorionak!



ELGOIBAR
Ayan

Zorionak, Ayan! Gaur, 7 urte! Ondo pasa eguna eta muxu asko, etxekoen partez. Maite zaitugu.



MALLABIA
Aunitz

Zorionak, Aunitz, zure seigarren urtebetetzean. Ondo ondo pasa zure eguna; muxu potolo bat, etxekoen partez.



SORALUZE

Aritz eta Aitana

Aritz Cenzual eta Aitana Cortes ekainaren 12an ezkondu ziren Soraluzean. Gozatu elkarrekin urte luzez! Soraluzeko lagunak.

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurra helbidean sartu.
- Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurra@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
- Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.

Zorion agurrek saria dute
Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean
Galle-Tiak Fabrik-eko produktu pertsonalizatuak zozkatuko dira astero!

Joan den asteko irabazleak!

Aste honetako irabazlea: MARKEL BARRENETXEA

MENDARO



Juan Jose Zabala Arriola

2026ko ekainaren 17an hil zen, 86 urte zituela



*Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin,
oroimenean izango zara zu beti gurekin.*

Zure familia

Familiaren izenean eskerrik asko egun hauetan gure ondoan egon zareten guztioi.

MENDARO

Juan Jose Zabala Arriola

2026ko ekainaren 17an hil zen, 86 urte zituela



Beti izango zaitugu gogoan.

Aizpe Elkartea



ELGOIBAR

Ines Intxausti Muguruza

Vicente Elcoro-Iribe Gurrutxagaren alarguna
2026ko ekainaren 17an hil zen, 98 urte zituela.



*Joan zinen gu hemen utzita,
baina jakin ezazu inoiz ez zaitugula ahaztuko.*

Zure sendia

Familiaren izenean eskerrik asko egun hauetan gure ondoan egon zareten guztioi.

Barrena eskelak: zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 19

- **ERMUA Erakusketa: 'Emakume zientzialariak itzalean'** Izarra Centren, 08:00etatik 22:00etara. Uztailearen 15era arte.
- **ITZIAR 'Magia zaparrada' ikuskizuna** Alain Zulaika ilusionistaren eskutik. Familia osoari zuzendutako ikuskizuna da. Burugorri gainean, 16:30ean.
- **MENDARO Txirristaka Bertsopaper Lehiaketako eta jaietako kartel lehiaketako sari banaketa ekitaldia** Mendaroko Udalak eta

In Leike kultur elkarteak elkarlanean antolatuta. Udalbatza aretoan, 18:00etan.

- **DEBA Batukada ikastaroa** Euskal Herriko Batukada Feministen Sareko irakasleen eskutik. Izen-ematea: 637 55 29 48. Agirre jauregian, 18:00etan.
- **MALLABIA 'Beste zerbait' liburua aurkezteko bertso-saioa** Mallabiko Udalak eta Berdintasun Kontseiluak antolatuta. Gai-jartzailea: Danele Sarriugarte. Bertsolariak: Oihana Arana eta Miren Amuriza, Kontzejuzarran, 18:00etan.



ELGOIBAR Aitzolako jaiak

OSTIRALA 19: 20:00etan, jaien hasierako ospakizuna. 22:30ean, Ivan DJa.

LARUNBATA 20: 17:00etan, Lekim Animazioak. Clown ikuskizuna familia guztientzat. 18:00etan, apar-kanoia. 19:00etan, txokolate-jana. 22:30ean, Rockyou kontzertua.

IGANDEA 21: 14:00etan, herri bazkaria. 18:30ean, Silver River, pop-rock akustikoko musika bikotea. Ingelesezko, euskarazko eta gaztelaniazko abestien bertsioak. Bazkarirako izen-ematea: 635 75 34 47.

ASTEARTEA 23: 14:00etan, txupinazoa. 19:00etan, San Joan zuhaitza jartzea. 22:30ean, San Joan sua.

ASTEAZKENA 24: 10:00etan, diana, txistulariekin. 11:00etan, prozesioa eta meza, abesbatzarekin. 12:00etan, dantzariak eta txistulariak. 18:00etan, sardina-jate herrikoa, Elgoibarko Jubilatuen Elkarteak antolatuta. 18:30ean, A&B DJ. 21:00etan, agurra eta jaien amaiera.

- **ERMUA 'Gu ere bagara!'** Ines Bermejo artistak eta Julen Nafarrate kazetariak bultzatutako sormen-lana da. Proiektu horren helburua Getxoko LGBTQ+ nagusien kontaktu gabeko istorioak jasotzea da, eta, aldi berean, ezagutzeko zer-nolakoak diren euren errealitatea eta bizipenak. Antolatzailea: Lagun Artea Emakumeen Topalekua, 18:00etan. Ekainaren 30era arte.
- **ERMUA Pintura erakusketa: 'Mugartea'** Astelehenetik ostiralera: 18:00etatik 20:00etara. Larunbat eta igandeetan: 12:00etatik 14:00etara. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan. Ekainaren 30era arte.
- **ELGOIBAR Pala Txapelketako finalak** Lagunak pilota eskolak antolatuta. Kalegoen plazan, 18:30ean. Euria egiten badu, ikastolako frontoian.
- **ELGOIBAR Musika eskolako ikasleen kontzertua** Maalako parkean, 19:30ean.
- **ERMUA Kontzertua: Alboka eguna** Orbe kardinalaren plazan, 19:30ean.



ERMUA Errozioa

OSTIRALA 19: Andaluziar Kultur Etxean. 09:00etan, flamenko pintxo-potea. 22:30ean, Errozioko salbea.

LARUNBATA 20: Betiondon: 10:30ean, Ama Birjinaren irteera, Ermuko kaleetan zehar ibilaldia. 12:30ean, Errozioko meza, Aljarafe abesbatzarekin. 13:30ean, ohorezko ardoa. 14:00etan, Academia Eva dantza taldea. 15:00etan, herri bazkaria. 18:00etan, Alborea dantza taldea. 18:30ean, Piti Por Rumbas flamenko taldea. 20:00etan, Errozioko salbea eta Ama Birjinaren jasotzea.

- **DEBA 'Norbere mundu intimo' ikuskizuna** Mirari Martiarena umoristaren eta Asier Galarza bertsolariaren eskutik. Sarrerak, 5 euro: labur.eus/norberemunduintimo. Kultur Elkartearen, 20:00etan.
- **DEBA Kontzertua: Mikel Oteiza** Ondargain tabernan, 20:00etan.
- **DEBA Udal Musika eta Dantza Eskolako ikasturte bukaerako jaialdia** Zumardian, kioskoaren parean, 21:30ean.
- **SORALUZE Aire zabaleko zinema: 'Jone, batzuetan'** Filmaren proiektioaren aurretik, haurrentzako film laburren saio txiki bat eskainiko da. Plaza Zaharrean, 22:30ean.

LARUNBATA 20

- **DEBA Zuhatza Trail prestatzeko entrenamendu saioa** Foruen plazan, 09:00etan.
- **SORALUZE Ahalduzte eskola: 'Batukada feminista'** Emakumeon* Ahalduzte Eskolako udaberri-udako egitarauaren baitan



DEBA Luzaro eskolako festa

LARUNBATA 20: Egun osoko egitaraua antolatu dute Luzaro ikastetxeak, Zubi Guraso Elkarteak eta Debako Udalak. 10:30ean, Kolore Anitz jolas-txokoak –lau zumardian eta beste bat Plaza Zaharrean–. 12:30ean, Debako Musika Banda Gazteak kontzertua emango du Erriberrikoarekin batera, elizan. 13:30ean, ikasleen trikiti eta pandero kalejira, Foruen plazan. 14:30ean, bazkaria, Aldats pilotalekuan. 16:30ean, musika girotua, Kolore Anitzen eskutik, Foruen plazan.

antolatutako ekintza. Herri Antzokian, 10:00etan.

- **SORALUZE Ibilaldi gidatua herriko landaredia ezagutzeko** Plaza Berritik abiatuta, 10:00etan.
- **ITZIAR Mardaritarren Eguna** 10:30ean, txangoa ermita zaharrera –irteera, Santuarango aparkalekutik–. 11:00etan, hamaiketako eta auzoko sagardo dastaketa ermita zaharrean. 14:30ean, bazkaria, Santuaran jatetxean, trikitilariak alaituta. 17:00etan, umeentzako merienda. Mardari auzoan.
- **SORALUZE Ikasturte amaierako jaialdia** Atxolin eta Keixeta guraso-elkarteek elkarlanean antolatutako egun osoko jaia, goizetik iluntzera arte. 11:00-13:00 eta 16:00-19:00 ur-parkea izango da Frontoi Zaharrean, Soroluzeko umeen eta gazteen ikasturte amaiera festa modura. Ondoren, bertan bazkaria, bakoitzak jatekoa etxetik eramanda. 18:30ean, apar festa berezia.
- **ELGOIBAR CD Elgoibarren denboraldi amaierako bazkaria** Maalako parkean, 14:00etan.
- **ELGOIBAR Urruzuno Trail Fest** Catt Morkaiko taldeak antolatuta. Albitzuriko aparkalekutik abiatuta, Urruzuno auzoraino, 17:00etan.
- **MENDARO Sanjoanetako ekintzak, gaztelekuan** San Joan jaiari lotuta, egun horretako usadioarekin lotura duten ekintzak egingo dituzte. Gaztelekuan, 18:00etan.

IGANDEA 21

- **DEBA Mendi irteera bateratua: Arantzazu-Otzaurte** Parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea. Autobus geralekuan, 07:30ean.
- **MALLABIA Bideoforuma: 'Mi querida señorita'** Kontzejuzarran, 12:15ean.

ASTELEHENA 22

- **MALLABIA Tenis Promises** Eskolako frontoian, 10:00etan.
- **ERMUA II. Ermuko Gazte Areto Futbol Txapelketa** Gazteria Zerbitzuak



MALLABIA Goita auzoko jaiak

OSTIRALA 19: 19:00etan, jaien hasiera, txopoa jaso eta txapliguak botatzea. 21:30ean, bertso afaria: Sustrai Kolina eta Amets Arzallus. Ondoren, trikitaliak: Lander eta Mikel.

LARUNBATA 20: 18:00etan hasita, umeentzako jolasak. 20:30ean, patata-tortilla txapelketako aurkezpena. 22:00etan, Arantza eta bere taldea. Amaitzeko, trikitaliak.

IGANDEA 21: 11:00etan, meza. Ondoren, Mallabiko Gazte Alai dantza taldea eta ardi-mozte saioa: Aritz Abendibar artaziek, Aunitz Arrinda makinarekin, Mikel Etxebarriaren erakustaldia makinarekin eta Janire Artabe artilearen inguruko azalpenak ematen. 17:00etan, bola txapelketa. Ondoren, txokolatea.

ASTEARTEA 23: San Joan sua eta bertaraten diren auzotarrentzat afari-merienda.

ASTEAZKENA 24: 18:00etan, *sobrie* prestatzea. 19:00etan, meza. Ondoren, mokadua bertaraten direnentzat. Amaitzeko, errifaren zozketa eta jaien amaiera.

antolatuta. Betiondoko instalazioetan, 16:00etan.

- **DEBA Kolorez Blai udalekuei buruzko bilera** Udaletxeko batzar aretoan, 18:30ean.
- **DEBA Zinema: 'F1: la película'** Kultur Elkartearen, 19:00etan.

ASTEARTEA 23

- **MALLABIA Tenis Promises** Eskolako frontoian, 10:00etan.
- **ELGOIBAR Zaintzako eta etxetzeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua** Merlin Medinarekin. Doan. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 16:00etan.
- **ERMUA II. Ermuko Gazte Aretoko Futbol Txapelketa** Gazteria Zerbitzuak antolatuta.

Betiondoko instalazioetan, 16:00etan.

- **ELGOIBAR Lila: ikasturte amaierako festa** Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 17:30ean.
- **DEBA San Joan bezperako ospakizuna** 21:00etan, Kalez Kale txistulariak kaleetan zehar. 22:00etan, sua piztuko dute plazan eta Gure Kai Euskal Dantzari Taldeko kideen emanaldia izango da. Ondoren, erromeria, Ostolaza eta Narbaiza trikitaliaren eskutik. Foruen plazan, 21:00etan.
- **MENDARO San Joan bezpera eguneko akelarrea** In Leike kultur elkarteak Udalaren eta herriko zenbait eragileren laguntzarekin antolatuta. Su handia piztuko dute plazan, eta haren inguruan

osatuko dute ikuskizuna iluntzearekin batera. Trinitaten hasiko dute kalejira, 22:00etan, eta 22.15 aldera hasiko da ikuskizuna Herriko Enparantzan.

- **ITZIAR San Joan sua** Urmaeleko partzelan, 22:00etan.
- **LASTUR San Joan sua** San Nikolas plazan, 22:00etan.
- **ERMUA San Joan sua** Euskal Birusa Elkarteak eta Txindurri Txistu eta Dantza taldeak antolatuta, Udalaren laguntzarekin. 22:30ean hasita, akelarrea, irrintzi lehiaketa eta San Juan kantua antolatu dute. 00:00etan, zezensuzkoa. Orbe Kardinala plazan, 22:30ean.
- **SORALUZE Udate Gaua** Sua piztu aurretik, 22:30ean, txistulariak, txalapartariak, bertsolariak eta abesbatzako kideak izango dira Plaza Barrixan. Gero, sua piztu, eta dantzan egingo dute. Hori guztia baino lehen, 19:00etatik 22:00ak arte, ikasbidaiako ikasleek eta gurasoek jan-edana erosteko aukera eskainiko dute.

ASTEAZKENA 24

- **DEBA San Joan eguneko ospakizuna** 10:00etan hasita, ohiko zuhaitza jarriko dute Foruen plazan.
- **ITZIAR San Joan eguneko ospakizuna** 11:30ean, meza esango dute Santa Katalina ermitan.
- **MALLABIA Tenis Promises** Eskolako frontoian, 10:00etan.
- **ERMUA II. Ermuko Gazte Aretoko Futbol Txapelketa** Gazteria Zerbitzuak antolatuta. Betiondoko instalazioetan, 16:00etan.
- **MENDARO Frontenis txapelketak** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etan.

OSTEGUNA 25

- **MALLABIA Frontenis Promises** Eskolako frontoian, 10:00etan.

- **SORALUZE Liburutegia kalera** Plaza Barrixan, 10:00etatik 13:00etara.
- **DEBA Ongizatearen Plaza** Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez. 10:00etan, *Osasuntsu zahartu*, ETBn egiten den programa berezia. 11:30ean, *Autonomia eta prebentzioa zahartzaroan* solasaldia. 17:00etan, *Hizkuntza, nortasuna eta ongizatea. Deban nola bizi dugu euskara?* saioa. 18:00etan, *Pantailen aroan, erabilera osasuntsua* saio dinamikoa, Altxa Burua elkartearekin.
- **DEBA 'Lo hondo' erakusketaren aurkezpena** Clara Leton Gil 2026ko Gazteentzako Arte Bisual Lehiaketako irabazleak aurkeztuko du. Elizako klastroan, 12:00etan.
- **ERMUA II. Ermuko Gazte Aretoko Futbol txapelketa** Gazteria Zerbitzuak antolatuta. Betiondoko instalazioetan, 16:00etan.
- **SORALUZE Soraluzeko emakumeon* arteko topaketa** Soraluzeko Emakumeon* Ahalduntze Eskolako udaberri eta udako egitarauaren baitan antolatutako ekintza. Kalebarren 8an, 18:00etan.
- **MENDARO Frontenis txapelketak** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Isiltasunaren eskola** Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 19:00etan.

OSTIRALA 26

- **DEBA Ongizatearen Plaza** Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez. 10:00etan, *Elikadura jasangarria eta osasuntsua*, Jakoba Errekondo adituarekin solasaldia. Harekin batera arituko dira tokiko ondoko ekoizleak: Doniene baserriko Mirian eta Nerea Arrizabalaga eta Beliosoro baserriko Juan Mari Etxabe. 11:30ean, *Nahiez den bakardadea* saioa. 17:30ean, barreterapia

tailerra, Idoia Torregarai umoristaren eskutik. 18:30ean, amaiera eta txakolin dastaketa. Telmo Iruretagoiena sommelierrek Getariako Txakolinaren inguruko azalpen-saioa egingo du. Ondoren, dastaketa egingo dute, Kanean Kantuz taldeak girotuta.

- **ELGOIBAR Nahaste Borraste** Kimetz Elkarteak antolatuta. Partaideek korrika, bizikletan eta zakua lepoan dutela lehiatu beharko dute. Kalegoen plazan, 19:00etan.
- **ERMUA San Pelaio auzoko jaiak** Jaien hasiera kalejiran –Rincon tabernatik–. 19:00etan, Los Galaicos. 22:30ean,

kontzertua San Pelaio plazan: Norbac.

- **DEBA Euskal presoena eta iheslarien giza eskubideen aldeko mobilizazioa** Foruen plazan, 19:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

19 BARIKUA Soto / Lasuen-Elezgaray / A. Alcalá
20 ZAPATUA Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / I. Ugarte / *A.M. Baz
21 DOMEKA Garitaonandia / Lasuen-Elezgaray / I. Ugarte
22 ASTELEHENA Arriola / A. Zalduegi / A.M. Baz
23 MARTITZENA Fernandez / A. Zalduegi / M. Alves
24 EGUAZTENA Yudego / A. Zalduegi / I. Lecumberri
25 EGUENA Oruesagasti / A. Zalduegi / A. Alcalá
26 BARIKUA Barrenetxea / H. Burgoa / I. Ugarte

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

Egunez: 09:00-22:00
Gauetz: 22:00-09:00
 Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
Larunbatak:
 Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
 Deba-Mutriku: 09:30-13:00
 Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

AZKEN BERBA

Ez dute emakumezkoen kirolean sinesten



JUAN CARLOS MARTIN
PSIKOLOGOA

Emakumezkoen kirola gizonezkoenarekin etengabe alderatzeko beharra dago; batez ere, errentagarritasunaren inguruko eztabaida faltsua ahoan. Zergatik gertatzen da hori? Gizarte honek oraindik ez duelako barneratuta neska edo emakume batek mutil edo gizon baten baldintza beretan kirola egin dezakeenik.

Are gehiago, gizarte honek emakume kirolariaren errendimendua, gaitasunak, jokoaren kalitatea... alderatzeko joera du, haien lorpenak gutxiesteko eta baliabideen banaketan dagoen desberdintasun historikoa mantentzeko helburuarekin.

Klubek eta markek ulertzen ez duten bitartean kirola sustatu behar dela emakumeek horretarako duten eskubide hutsagatik, norgehiagoka batek dituen ikusleei edo kirolari batek saltzen dituen kamiseta eta zapatila kopuruari erreparatzen jarraituko zaio, emakume horrek bere kirolera zenbat neska erakartzen dituen kontuan hartu beharrean.

Klub horiek ez dira arduratzen, hain zuzen, entrenamenduak eta jarduerak fisikoa emakumezkoen ezaugarri indibidualak nola egokituko ikertzeaz.

BUKATZEKO

"Artea ustekabea, inork espero ez duen txokoetan, topatzeak erakartzen nau"

BANKSY BAT ERMUAN ARTE URBANOAREN SORTZAILE ANONIMOA

Ander Gomez ERMUA

Urteak daramatza *stencil*-ekin grafitiak egiten, koadrotxoak zintzilikatzen eta bestelako esku-hartze artistikoak egiten Ermuko paretetan. Ez du bere burua artistatzaile hartzen, anonimotasuna zaintzen du, eta helburua sinplea dela dio: "Jendea segundo batez gelditzea, begiratzea eta artea estimatzea". **Nola murgildu zinen arte urbanoaren munduan?**

Betidanik gustatu izan zait. Interneten eta bidaietan ikusitakoak izan ditut inspirazio iturri. Toki bat esatekotan, Brusela aipatuko nuke; bertako muralen kulturak liluratu ninduen. Artea ustekabea, inork espero ez duen txokoetan, topatzeak erakartzen ninduela deskubritu nuen bertan. **Horrek eraman zintuen Ermuko kaleak apaintzeko proiektua abiatzera?**

Bai eta ez. Ez daukat aparteko azalpenik. Askotan, Edmund Hillaryren erantzuna datorkit burura, Everestera igo zela "han zegoelako". Behin paretara zuri-zuri bat ikusi nuen Erdikokalen, "zergatik ez?" pentsatu eta margotzen hasi nintzen, besterik gabe. **Gogoan duzu lehen irudi hura?**

Arratoi batzuk ziren. Paretatik ateratzen den hodi baten gainean irudikatu nituen, paraxutarekin jauzi egiten. Lehen lanetatik mantentzen den bakarra M8ra-ko egin nuen irudi femenino eta alegoria feministen bilduma da. **Nabarmena da Banksyren eragina.** Eragina ez, asko eta asko haren irudiak dira zuzenean. Nik, artista baino gehiago, sortzaile bezala ikusten dut neure burua. Obra gutxi batzuk sortu edo moldatzen ditut; gainontzean, gustuko ditudan artisten obrak zabalitzen ditut. Banksyren kasuan, haren sinpletasuna gustatzen zait, irudi erraz baina indartsuen bidez denok uler ditzakegun ideiak transmititzen dituela.

Zein da zure piezarik gustukoena? Haren obrak bi multzotan banatu daitezke: elementu kontrajarririak dituztenak, *Lore-jaurtitzailer*a bezala; eta sentimenduak irudikatzen dituztenak, *Neska globoarekin* kasu. *Smile* esaldia



Neskatoa globoekin, paretan margotua, *stencil* bidez. E.B.

duen neskatoarena gustatzen zait; ez dauka ezer berezirik, eta, agian, horregatik gustatzen zait.

Beste erreferenterik baduzu?

Askok miresten dut Shamsia Hassani. Emakume afganiarra da eta testuinguru zailean artelan ederrak egin ditu.

Badago Hassaniren irudirik Ermuan? Egon dira. Uste dut bakarra geratzen dela. Haren obrak plastikata eta formatu txikiak egin izan ditut, eta ez dut ukatuko *tentagarriak* direla. Etxera eramaten duenak arte hori baloratzen duelako egiten badu... tira, ondo deritzot.

Axola zaizun bat edo beste galduko zenuen...

Ispilu handi baten markoarekin eta M8ko kartel irabazle batekin egin nuen lana. Aratustetan jarri nuen, eta hurrengo egunean desagertuta zegoen. Diru eta denbora dezente eskaini nion, eta lagun batzuekin batera egin nuen. Horregatik, etxean daukanari eskatuko nioke, posible bada, hartu zuen tokian uzteko berriz; kalean



Mona Lisa bazukarekin, egurrezko koadrotxoan. A. GOMEZ

egoteko eta herritar guztiek disfrutatzen sortu baitzen. **Koadro hura lan berezia izan zen, baina baduzu egurrezko koadro txikiak zintzilikatzeko ohitura.**

Politik iruditzen zaizkidalako, baina ohitura azkar jarri eta azkar ospa egiteko aukera ematen dutelako hartu nuen; kar-kar. **Ihes egin behar izan duzu inoiz?**

Behin baino gehiagotan. Pentsa herrigunea kameraz josita dagoela. Hasieran, hiru aldiz izan nuen polizia atzetik, eta laugarrenean, hiru autorekin inguratu ninduten. Askorik pentsatu barik, motxilan nuen brotxa hartu eta paretara zuriz margotzen hasi nintzen. Paretako zirriborroek gogaitzen nindutela esan nien, ero plantak eginez.

Funtzionatu zuen?

Ez guztiz. Espraiz beteta nuen motxila husten saiatu ziren, baina justu polizietako batek ezagutu ninduen -ni, herritarra-, eta orduan jakin nuen arazo barik aterako nintzela hortik.

Zure ustez, non dago artearen eta bandalismoaren arteko muga?

Ez naiz inor artea zer den eta zer ez den esateko. Baina, adibidez, sinadurak ez ditut gustuko. Mugimendua 70eko hamarkadan sortu zen, New Yorken, hainbat auzotako jendeak "hemen nago" esateko modu bezala, eta orduan zentzua zuen. Gaur egun, banketxeetan baino gehiago, jendearen etxe atarrietan ipintzen dira, inongo mezu barik eta ulertezin, eta langile horrek egunero ikusi behar du.

Ailegatu zaizu iritzirik zuri?

Apenas. Duela gutxi, bi neska ikusi nituen koadrotxoegi begira, eta gerturatzen egon nintzen, zer esaten ari ziren entzuteko

jakin-minez. Baina aurrera jarraitu nuen. Agian, hobe horrela; kritikei dagokionez sentibera samarra naizela uste dut: zerbait txarra izanez gero, asko eragingo lidake.

Lagatzea pentsatu duzu inoiz ala Banksy bat Ermuan izango dugu luzaroan?

Ez dut pentsatu, baina bihar bertan laga nezake, lasai asko. Sasoika doa, inspirazioarekin batera. Orain, ilusio berezia egiten didan proiektu bat daukat esku artean: sardina-kaxak mihi-se bezala erabilia, Markos Gimenoaren obran oinarritutako koadro batzuk egitea eta herrian zehar zintzilikatzea. Berezi gustatuko litzaidake Banksy bat eta Markos Gimeno bat bata bestearen alboan ikustea. Ez lagun nuelako, ezta inor baino hobe bezala pentsatzen dudalako ere, baina kalitateari eta originaltasunari dagokionez, haren obra Banksy baten alboan egoteko bestekoa dela uste dut. **Banksyren identitatea agerian utzi omen dute; zurea oraindik misterio hutsa da. Pistarik ematerik baduzu, asmatu nahian dabilzanezat?**

Ez daukat interesik horretan. Batetik, anonimotasuna egiten dudaren filosofiaren parte delako; hala sortu zen *stencil*-a, arte azkar eta aldarrikatzaile gisa. Bestetik, nire izaeragatik, ez nuke inondik inora ezagun bihurtu nahi. Joko bat nahi izanez gero, herritarrei proposatuko nieke herrian zehar sakabanututa dauden obrak topatzen saiatzeko. Azken aldiz zenbatu nituenean hogeita bost zeuden, baina, seguru aski, gehiago egongo dira hor zehar galduta; hortxe erronka!

"Desagertzen diren lanek artea baloratzen den etxeetan bukatzen badute, ondo deritzot; baina nahiago kalean"



Berdintasunaren pasealekuko banku bakoitzean haren irudi bat dago, emakume erreferenteen esaldien alboan. E.B.

Barrena
DEBABARRENKO KOMUNIKAZIO TALDEA
943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea BARRENA astekarian edo www.barrena.eus webgunean